



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urtarrilaren 27a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—“Tasubinsa eta Anfasentzako laguntza publikoak (2009-2013)” izeneko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Tasubinsa eta Anfasentzako laguntza publikoak (2009-2013)” izeneko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, “Tasubinsa eta Anfasentzako laguntza publikoak (2009-2013)” izenekoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

“Tasubinsa eta Anfasentzako laguntza publikoak (2009-2013)” izeneko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|---|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Tasubinsa eta Anfas (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Tasubinsa (3. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Anfas (6. or.).</p> <p>III. Helburuak eta norainokoa (7. or.).</p> | <p>IV. Ondorioak eta gomendioak (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Tasubinsak jasotako diru-laguntzak (2009-2013) (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Anfasek jasotako diru-laguntzak (2009-2013) (10. or.).</p> <p>V. Egindako lanaren azterketa xehaketa (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Tasubinsak jasotako diru-laguntzak (2009-2013) (12. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.1.1. Diru-laguntzen kuantifikazioa (12. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.1.2. Jasotako diru-laguntzen azterketa (13. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.1.3. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak irekitako itzulketa espedienteak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Anfasek jasotako diru-laguntzak (2009-2013) (23. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.2.1. Diru-laguntzen kuantifikazioa (23. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.2.2. Jasotako diru-laguntzen azterketa (23. or.).</p> <p>1. eranskina: Tasubinsak jasotako diru-laguntzen azterketaren laburpena (29. or.).</p> <p>2. eranskina: Anfasek jasotako diru-laguntzen azterketaren laburpena (30. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (31. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako eran-</p> |
|--|---|

I. SARRERA

2014ko apirilaren 10ean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskari bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen ekimenez, fiskalizazio-txosten bat egin genezan Talleres Auxiliares de Subcontratación Industrial de Navarra, S.A.k (Tasubinsa) eta Asociación Navarra a favor de las personas con discapacidad intelectual (Anfas) elkarteak jasotako laguntza publikoei buruz eta laguntza horiek bideratu behar zireneko jardueren betetzeari buruz.

Eskariaren denbora-esparrua 2010etik 2013ra bitarteko aldia hartzen bazuen ere, komenigarritzat jo da 2009ra arte eramatea.

Lana auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek egin du, 2014ko uztailetik urrira, Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, Tasubinsari eta Anfasi buruzko datu orokor batzuk ematen dira; hirugarrenean, txostenaren helburua eta norainokoa deskribatzen dira; laugarrenean, ondorioak eta gomendioak, eta bosgarrenean, analisi xehe bat egiten da egindako lanari buruz.

Eskerrak ematen diegu Nafarroako Enplegu Zerbitzuko (NEZ), Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziako (PANA), Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko Idazkaritza Tekniko Orokorreko, Nafarroako Zerga Ogasuneko Diru-bilketa Zerbitzuko, Tasubinsako eta Anfaseko langileei, lan hau egiteko eman dигuten laguntzarengatik.

II. TASUBINSA ETA ANFAS

II.1. TASUBINSA

Tasubinsa sozietate anonimo bat da, enplegu zentro berezi gisa izena emanda dagoena, eta irabazi asmorik gabekoa. Onura publikokotzat eta ezinbestekotzat deklaratu zuen Nafarroako Gobernuak. Desgaitasuna –nagusiki adimen-desgaitasuna– duten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea dira Tasubinsaren helburu soziala.

1989an sortu zen Tasubinsa, Nafarroako Gobernuaren eta Anfasen arteko akordio baten bidez, azken horretatik bereizi baitzen, besteak beste, desgaitasuna duten pertsonen enpleguaren kudeaketa eta lanerako prestatzeko zentroyen zuzendaritza.

Enpresaren kapital soziala, zeina 2013an 6,59 milioi eurokoa baitzen, Anfasen jabetzakoa da ehuneko 78an, eta Fundosarena (ONCE fundazioaren tresna-sozietatea) gainerako ehuneko 22an.

Administrazio Kontseiluaren osaketak aldageta gutxi izan ditu denboran zehar; hasi zenetik, Nafarroako Gobernuak, Anfasen, Fundosaren, eta langileen ordezkariak izan ditu, eta, aurrerago, baita Nafarroako Industria Elkarteko, CAN Fundazioko eta Marketing Klubeko ordezkariak ere. Kontseiluaren osaketa horri 2014ko maiatzaren amaierara arte eutsi zitzaion. Izan ere, garai hartan, Batzar Orokor Berezi batean, kontseilari kopurua hamahirutik bostera jaitsi ziren. Bost horien artean, Anfasen eta Fundosaren ordezkariak baino ez zeuden.

Administrazio Kontseiluaren aldageta horrekin batera, gerentziako lantaldea ere aldatu zen, bai eta entitateko zuzendaritzaren zatirik handiena ere, kudeaketa hobea lortze aldera.

Tasubinsaren jarduera, funtsean, honako bi zerbitzu moten ingurukoa da:

- a) ENPLEGU ZENTRO BEREZIA (EZB): desgaitasuna duten pertsonen laneraterako unitateak dira.

Zentro horiek, funtsean, eginkizun industrialetan jarduten dute (plastikoen injekzioa eta dekorazioa, muntaketa elektronikoa eta abar), bai eta zerbitzuak ematen ere.

Babes-unitateak (BU), arlo anitzeko profesionalen lantaldeek osatzen dituzte, EZBen doikuntza pertsonal eta sozialeko zerbitzuen barruan, eta desgaitasuna¹ duten langileek lanpostu baterako sarrera-

¹ Araudiaren arabera, onuradunak honakoak izan beharko lukete: garuneko perlesia duten pertsonak, gaixotasun mentala duten pertsonak edo adimen-desgaitasuna duten pertsonak, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradu aitortuarekin; halaber, desgaitasun fisiko edo sensoriala duten pertsonak izan ahalko dira, ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-gradu aitortua dutenak.

prozesuan aurkitzen dituzten oztopoak edo zailtasunak gainditzeko eta lanpostuan irauten eta aurrera egiten laguntzen duten arlo anitzeko profesional-taldeen osatzen dituzte.

b) LANERAKO PRESTATZEKO ZENTROAK (LPZ): lanera bideratzeko terapiako eta doikuntza pertsonal eta sozialeko zerbitzuak bermatzeko unitateak dira, aldi baterako desgaitasun nabarmena edo desgaitasun iraunkorra duten pertsonentzat, desgaitasun horrek enpresa batean edo enplegu zentro berezi batean txertatzea ezinezko egiten dienean.

Egituratzeko horrek, 2014ko urrian, honako antolamendua dakar:

Lantokia	Pertsona-kopurua		Jarduera
	CO	Enplegu zentro bereziak	
Elizondo	8	14	Osagai elektromekanikoen muntaketa
Lakuntza	22	17	Osagai elektromekanikoen muntaketa
Orkoien	97	58	Farmaziarako logistika eta manipulazio-izaera duten jarduerak
Orkoien 2 (zerbitzuak)	0	37	Garbiketa, lorezaintza eta mantentze-lan integralak
Burlata	94	101	Osagai elektromekanikoen muntaketa
Aratzuri	0	113	Bulego zentralak <i>Just in time</i> gisako berariazko muntaketak
Noain	0	45	Garbitegi industrialak
Beriain	59	78	Osagai estetiko, tekniko eta elektromekanikoen injekzioa eta muntaketa
Villatuerta	39	52	Osagai elektromekanikoen muntaketak eta manipulazio gisako jarduketak
Tafalla	56	77	Muntaketa elektromekanikoak
Zangoza	28	11	Manipulazio izaerako jarduketak
San Adrián	36	52	Osagai elektromekanikoen muntaketak eta manipulazio gisako jarduketak
Tutera	119	113	Osagaien injekzioa eta muntaketa. Manipulazio gisako jarduketak Lanerako prestatzeko unitate berezia
Ibaiondo zentroa (Iruña)	42	14	Lanerako prestatzeko unitate berezia eta zahartze goiztiarreko unitatea
Guztira	600	782	

Aurreko taulatik ondorioztatzen da, gaur egun 1.382 direla sozietatean lan egiten dutenak edo hartan ematen diren zerbitzuak hartzen dituztenak. Aztertutako aldirian, pertsona horien kopuruak ehuneko zazpi egin du gora, honako xehetasunen arabera:

	Pertsona kopurua adierazitako datan						2014-10-14an	Aldearen %, 2014/2009
	2009-12-31n	2010-12-31n	2011-12-31n	2012-12-31n	2013-12-31n	2014-10-14an		
Lanerako zentroak (adimen-desgaitasuna duten pertsonak)	595	603	603	598	600	600	1	
Enplegu zentro bereziak	693	702	708	711	752	782	13	
Adimen-desgaitasuna duten pertsonak	438	435	438	439	441	441	1	
Bestelako desgaitasunak dituzten pertsonak	100	108	108	108	143	165	65	
Desgaitasunik ez duten pertsonak	155	159	162	164	168	176	14	
Guztira (lanerako zentroak + enplegu zentro bereziak)	1.288	1.305	1.311	1.309	1.352	1.382	7	

Lanerako prestatzeko zentroan, pertsona kopuruari eutsi zaio, ehuneko bateko igoerarekin. Postu horiek urtero PANArekin adosten dira, eta 600 inguruko kopuru bat finkatzen da.

Enplegu zentro berezietako pertsona kopuruak ehuneko 13 egin zuen gora. Enplegu zentro berezien artean, igoerarik aipagarriena adimeneko desgaitasunaz bestelakoak dituzten pertsonen dagokiena da, ehuneko 65 handitu baita; hurrengo igoerarik handiena, desgaitasunik ez duten pertsonena da, ehuneko 14koa izan baita. 2009rekin alderatuta izan den igoera hain nabarmen hori funtsean zor zaio ohiko bezeroek eskari handiagoak egin izateari eta bezero berriak lortu izateari.

Tasubinsari laguntzak emateko legezko araurik garrantzitsuenetako bat da Lanaren eta Gizarte Gaien Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Agindua, zeinak ezartzen baititu desgaitasuna duten pertsonak enplegu zentro berezietan eta langile autonomo gisa lanean integratzeko laguntzak eta diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak.

Ministerio aginduak enplegu zentro bereziek eskura ditzaketan hiru laguntza mota zehazten ditu; hain zuzen ere, honakoak egiteko laguntzak:

- Enplegua sortzeko proiektuak, enplegu zentro bereziak sortzea edo egungo zentroyen plantilla handitzea dakartenak. Gisa horretako proiektuak direla eta, honakoetarako diru-laguntzak aurreikus-ten dira: laguntza teknikoa, inbertsioa, eta maileguen interesak. Inbertsioetarako ezarritako gehieneko muga 12.020 eurokoa da, desgaitasuna duten pertsonentzako sortutako kontratu egonkorreko lan-postu bakoitzeko.

- Lanpostuei eustea:

- a) Langileengatik enpresariak Gizarte Segurantzari ordaintzen dioten kuota 100eko 100 diruz laguntzea.

- b) Lanaldi osoa duten langile desgaituen ordainsari-kosturako diru-laguntzak, lanbide arteko gutxi-eneko soldataren ehuneko 50ekoak (lanaldia murrizten bada, diru-laguntza proportzio berean murriz-tuko da). Enpleguari eusteko eta enplegua sustatzeko presako neurriei buruzko 27/2009 Legeak por-tzentaje hori ehuneko 75eraino zabaldu zuen 2010eko amaierara arte –laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langileen kasuan,² 2011ko amaierara arte luzatu zen–.

- c) Lanpostua egokitzeko eta arkitektura-oztopoak kentzeko laguntzak.

- d) Enplegu zentro bereziak finantzarioki saneatzeko diru-laguntza, behin bakarrik emanen dena.

- e) Irabazi asmorik gabeko eta onuragarritasun publikoko enplegu zentro berezien aurrekontua orekatzeko diru-laguntza.

- Desgaitasuna duten langile langabetuak autonomo gisa ezartzea.

Araudi hori da Tasubinsak aztertutako aldi jaso zituen diru-laguntzen ehuneko 54ri aplikatzekoa zaiona, eta horrela zehaztuta dago diru-laguntzak emateko ebazpenetan, zeinek erreferentziako araudi gisa aipatzen baitute. Arau horren eta beste batzuen babesean, Nafarroako Gobernuak 2009-2013 aldiari Tasubinsari 44,36 milioi euro egiten duten diru-laguntzak eman zizkion, ondoren erakus-ten den bezala:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira, 2009-2013	Aldearen %, 2013/2012	Aldearen %, 2013/2009
4. kapitulua. Transferentzia arruntak	8.642.744	10.637.199	7.645.958	7.357.722	7.143.098	41.426.720	-3	-17
7. kapitulua. Kapital-transferentziak	887.400	1.106.040	926.976	11.631	-	2.932.047	-	-
Guztira	9.530.144	11.743.239	8.572.934	7.369.353	7.143.098	44.358.767	-3	-25

Ikusten den bezala, ia guztia transferentzia arruntei dagokie (ehuneko 93); 2013an, jasotako diru-laguntzek ehuneko 25 egin zuten behera 2009rekin alderatuta, eta ehuneko 3, berriz, 2012rekin alde-ratuta.

Tasubinsaren 2013ko ekitaldiko kontu-auditoriaren arabera, diru-laguntzak direla-eta jasotako fun-tsek sozietatearen guztizko diru-sarreraren ehuneko 36 egiten dute.

Tasubinsak, gainera, lorezaintza, garbiketa eta garbitegi zerbitzuak eman zizkion Nafarroako Go-bernuari, 377.905 euro egiten dutenak, aztertutako aldi osoan; kopuru horren ehuneko 57 2013. ur-teari dagozkio (217.168 euro), Noainen garbitegi industrial bat ezarri eta lehiaketa publiko batean kon-tratu hori lortu baitu.

² Garuneko perlesia duten pertsonak, gaixotasun mentala duten pertsonak edo adimen-desgaitasuna duten pertsonak, 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradu aitortua dutenak; halaber, desgaitasun fisiko edo sensoriala duten pertsonak izan ahalko dira, 100eko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-gradu aitortua dutenak.

II.2. ANFAS

Anfas irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, 1961ean sortua. Haren egitekoa da, konpromiso etiko batetik abiatuta, behar diren babes eta zerbitzuak bermatzea, honako testuinguruan: adimen-desgaitasuna edo garapenaren arloko desgaitasuna duen pertsona bakoitza bere eskubideez baliatzea eta gizarteratzea, eta familiek beren bizitza proiektu pertsonalak egin ahal izatea eta herritar gisa beren bizi-kalitatea hobetu ahal izatea.

Helburu hori betetzeko. Anfasek hainbat programa eta jarduketa egiten ditu, hurrengo taulan laburbil daitezkeenak:

Ekintzen hartzailea	Zein arlotan lan egiten duen
Adimen-desgaitasuna edo garapenaren desgaitasuna duten pertsonak	Haurren garapena
	Gazteen garapena
	Prestakuntza eta gaikuntza
	Aisia eta kultura
	Etxebizitzak eta bizimodu independentea izateko laguntza
	Hirugarren adina
Desgaitasuna duten pertsonen familiak	Zahartze goiztiarra
	Argibideak
	Aholkularitza
	Prestakuntza
	Familien atsedena
Gizartea	Hiri-kanpamenduak
	Gizarte sentsibilizazioa
	Boluntarioak
	Lizarrako erromesentzako aterpetxea

2013an, Anfasek 3.000 bazkide inguru zeuzkan eta honako herrietan zeuzkan ordezkariak: Iruña, Tuter, Tafalla, Lizarra, Zangoza, Sakana eta Baztan-Bidasoa.

Elkarteak aurrera eramandako programa eta jarduerak 1.300 pertsonarengana iritsi ziren 2013an, bai eta haien familiengana ere. Ekintza horiek gauzatzeko, Anfasek 75 langile izan zituen, bai eta 700 boluntario ingururen laguntza ere, urtean zehar.

Aztertutako aldian, Nafarroako Gobernuak 3,41 milioi euro egiten duten diru-laguntzak aitortu zituen, eta 3,34 milioi euro egiten duten gastuak, zerbitzuak emateagatik. Hona horren azalpena:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira	Aldearen %, 2013/2012	Aldearen %, 2013/2009
2. kapitulua. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	137.066	578.396	873.063	873.514	883.935	3.345.973	1	545
4. kapitulua. Transferentzia arruntak	1.023.266	1.009.352	548.158	432.892	330.535	3.344.204	-24	-68
7. kapitulua. Kapital-transferentziak	-	68.217	-	-	-	68.217	-	-
Diru-laguntzak, guztira	1.023.266	1.077.569	548.158	432.892	330.535	3.412.421	-24	-68

Tasubinsan gertatzen den bezala, Anfasek jasotako diru-laguntza ia guztiak transferentzia arruntei dagozkie (ehuneko 98); 2013an, jasotako diru-laguntzek ehuneko 24 eta ehuneko 68 egin zuten behera, 2012arekin eta 2009rekin alderatuta. Bestalde, zerbitzuetako gastuek ehuneko 1 eta ehuneko 545 egin zuten gora adierazitako urteekin alderatuta.

Gastuen 2. eta 4. kapituluetan hain alde nabarmenak egotearen arrazoi nagusia lotuta dago eta zor zaio etxebizitza-programaren eta arreta goiztiarreko programaren gastu-egozpenean izandako aldaketari; izan ere, hasiera batean, diru-laguntza gisa izapidetu ziren, eta gero, berriz, kontratuen bitartez artikulatu ziren. Alderdi hori zehaztasun handiagoz aztertu dugu txosten honetako V.2.1 atalean.

Halaber, aipatu beharra dago ezen, Anfasek eman digun informazioaren arabera, entitate horrek Nafarroako zenbait toki entitaterean diru-laguntzak jaso zituen, 364.266 eurokoak, 2009-2013 aldirian, ondoren erakusten den bezala:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Diruz lagundutako zenbatekoa	68.375	82.715	75.279	70.867	67.030	364.266
Tokiko entitate finantzaketa-emaileak	20	23	27	26	23	-

Anfasen 2013ko ekitaldiko kontu-auditoriaren arabera, sektore publikoaren diru-laguntzak direla eta jasotako funtsek elkartearen guztizko diru-sarreraren ehuneko 44 egiten dute.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Honako hauek dira txosten honen helburuak, Parlamentuak egindako eskaria kontuan hartuta:

- Tasubinsak eta Anfasek 2009-2013 aldirian jasotako laguntza publikoak zenbatestea.
- Diru-laguntza horien ematea aztertzea; halaber, aztertzea Tasubinsak eta Anfasek jasotako laguntza publikoak aztertutako aldirian aurreikusi ziren jardueretarako bideratu ziren.
- Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak egindako itzulketa-espeditenteak, Tasubinsak jasotako diru-laguntzen ingurukoak, aztertzea.

Lanaren norainokoak Tasubinsak aztertutako aldirian jasotako diru-laguntza ia guztiak hartu ditu (zenbatekoaren ehuneko 99), Anfasek jasotako laguntzen ehuneko 80, eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak 2009-2013 aldirako irekitako itzulketa-espeditenteak, Tasubinsak jasotako diru-laguntza batzuen zenbait klausula ez betetzearen ondoriozkoak.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsi eta Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko fiskalizazio-printzipioak eta fiskalizazio-arauak, lan honetarako bereziki egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan, egindako lanetik ateratako ondorio eta gomendio nagusiak azalduko ditugu:

IV.1. TASUBINSAK JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK (2009-2013)

Aztertutako aldirian, Tasubinsak 44,36 milioi euro egiten duten diru-laguntzak jaso zituen Nafarroako Gobernutik. Hona xehetasunak:

Kap.	Erakunde finantzatzailea	Azalpena	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira, 2009-2013
4	PANA	Lanerako prestatzeko zentroarekiko hitzarmena	3.400.000	3.400.000	3.500.000	3.500.000	3.500.000	17.300.000
		Enplegu zentro bereziko lansarien kostua	2.329.112	3.361.218	3.150.742	3.061.626	3.102.568	15.005.266
	NEZ	Enplegu zentro berezien Gizarte Segurantzaren-tzakako kuotak	661.704	2.829.294	-	-	-	3.490.998
		Enplegu zentro berezien aurrekontu-oreka	1.665.777	486.891	465.548	251.465	-	2.382.790
		Enplegu zentro berezietako babes-unitateak	553.199	537.145	527.668	541.871	539.930	2.699.813
		Enplegu zentro berezietako laguntza teknikoa	13.500	-	-	-	-	13.500
		Prestakuntza planak	19.452	18.200	-	2.760	-	37.652
		Gizarte-sentsibilizaziorako diru-laguntza	-	3.450	-	-	-	3.450
Nafarroako Foru Komunitatea	Erantzukizun sozial korporatiboaren sustapena	-	1.000	2.000	-	600	3.600	
4. kapitulua, guztira. Transferentzia arruntak			8.642.744	10.637.199	7.645.958	7.357.722	7.143.098	41.426.720
7	Nafarroako Foru Komunitatea	Inbertsioen homologatzea (jasogailua)	10.000	-	-	-	-	10.000
		Lehiakortasuna sustatzea	-	-	-	11.631	-	11.631
	NEZ	Enplegu zentro berezietako inbertsioak	706.692	817.433	765.766	-	-	2.289.891
		Enplegu zentro berezietan lanpostuak sortzeko inbertsioak	170.708	288.607	161.210	-	-	620.525
7. kapitulua, guztira. Kapital-transferentziak			887.400	1.106.040	926.976	11.631	-	2.932.047
Orokorra, guztira			9.530.144	11.743.239	8.572.934	7.369.353	7.143.098	44.358.767

Ikus daitekeen bezala, diru-laguntzen ehuneko 93 transferentzia arruntei dagozkie eta gainerako ehuneko zazpia, berriz, kapital-transferentziei. Aipatutako guztizko zenbatekotik, ehuneko 60 Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eman zuen eta gainerako ehuneko 39a, berriz, PANAK.

Azterketaren analisisia bat dator PANAK eta Tasubinsak lanerako prestatzeko zentroak finantzatzeko izenpetutako hitzarmenarekin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzutik enplegu zentro berezietarako jasotako diru-laguntzekin (laguntza teknikoarekin lotutakoa izan ezik). Aztertutako zenbatekoak Tasubinsak jasotako diru-laguntzen ehuneko 99 hartzen du.

Diru-laguntza horiei buruzko azterketaren laburpena txosten honetako 1. eranskinean kontsulta daiteke. Eginiko lanetik, oro har, honako alderdiak azpimarra daitezke:

- Diru-laguntzen guztizko kopuruaren ehuneko 13, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak guztiz kudeatua, oker eman zen edo/eta ez zen erabili aurreikusita zeuden jarduerak egiteko. Hona xehetasunak:

a) Tasubinsak zenbait pertsona desgaituren nominak aurkeztu zizkion bai Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, bai PANARI, lanerako prestatzeko zentroetarako hitzarmenen eta lansari-kostuetarako diru-laguntzaren egiaztagiri moduan. Nomina horiek bi laguntzen bitartez finantzatzea bateragarria zen, guztizko kostuaren 100eko 100 gainditzen ez zen bitartean. Aztertutako aldirian, portzentaje hori gainditzen zuten nominak finantzatu ziren (267.212 euro); hori dela eta, Tasubinsak diru-laguntzen zati bat ez zuen bideratu diru-laguntza horiek bideratu beharrekoak ziren jarduerak egitera.

b) Tasubinsak desgaitasuna duten langileen arduraren zuten langile profesionalen nominak aurkeztu zituen lanerako prestatzeko zentroetarako hitzarmenen eta babes-unitateentzako diru-laguntzaren egiaztagiri moduan –aztertutako aldirian, 2.699.813 euro egiten zuten guztira–. Egitate horrek suposatzen zuen Tasubinsak ez zuela bete babes-unitateetan desgaitasuna duen langile bakoitzeko eduki beharreko langile profesionalen nahitaezko ratioak, eta, horrenbestez, diru-laguntza hori ez zela bideratu eman zeneko jarduerak egitera.

2013an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ekimenez, erakunde horrek eta PANAK Tasubinsari emandako diru-laguntzen egiaztapen-datuak alderatu zituzten, eta honakoak izan ziren kontrol-lan horren ondorioak:

1) 2013ko amaieran, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak itzulketa partzialeko espedienteak ireki zituen, 250.595 euro egiten zutenak, 2010-2013 aldiko diru-laguntzak direla eta. Diru-laguntza horiek enplegu zentro berezietako langile desgaituen lansari-kostuei zegozkien. Izan ere, langile jakin batzuen nominen 100eko 100 baino gehiago finantzatutakoa zen. Espediente guztiak amaituta daude.

2) 2014an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak babes-unitateetako langileen finantzaketarako 2010-2013 aldirian emandako laguntza guztiak -2.351.750 euro- itzularazteko espediente abiaturik zuten, desgaitasuna duten langileentzako laguntza-ratioak ez betetzeagatik. Espediente guztiak amaituta daude.

3) 2014ko urrian, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari jakinarazi zizkion antzemandako gabeziak. Aurreikusita dago departamentu horrek kontabilitate-erantzukizuneko espediente administratibo bat irekitzea, enplegu zentro berezietako langile desgaituen 2009ko lansari kostuak partzialki itzultzekoa -39.271 euro gehi interesak-.

4) 2014ko urrian, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari jakinarazi zizkion antzemandako gabeziak. Aurreikusita dago departamentu horrek kontabilitate-erantzukizuneko espediente administratibo bat irekitzea, babes-unitateei 2009an emandako laguntzak guztiz itzultzekoa -545.695 euro gehi interesak-.

Tasubinsak, jada, 2013ko babes-unitateentzako langileentzako diru-laguntzari dagokion zenbatekoa itzuli du, bai eta 2012ko lansari-kostuak direla-eta behar gabe jasotako laguntzak ere, gehi haien interesak -guztira, 619.744 euro-. Gainerakorako, Nafarroako Gobernuak zorraren geroratze bat erabaki zuen, bost urterakoa.

c) Aztertutako kapitaleko diru-laguntza guztietan -2,63 milioi euro egiten dute-, Ganbera honek uste du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diru-laguntza horiek emateko ebazpenak ez datozela bat aplikatzeko den araudiarekin, sortu beharreko lanpostuen kopuruaren beharkizunari dagokionez.

Laguntza horiek hiru inbertsio-proiekturi dagozkio: kasu batean, sei lanpostu sortzea exijitu zen - araudiak, ordea, kopuru askoz handiagoa eskatzen zuten (204 lanpostu)-; beste bi kasuetan, berriz, ez zen exijitu inongo lanposturik sortzea -53 lanpostu sortzea exijitu behar zen, ordea-.

d) Bai sei lanpostu sortzea exijitzen zuten diru-laguntzaren kasuan, bai batere sortzea eskatzen ez zen diru-laguntzen kasuetan, ez dago jasota araudiak exijitutako lanpostuak sortu direnik.

e) Aurrekoari gehitu behar zaio nabarmentzeko moduko beste gabezi batzuk badaudela aztertu ditugun inbertsioetarako diru-laguntza guztiak emateko ebazpenetan: ez da zehazten ez lanpostuak zein epetan sortu behar diren, ez haien sorrera justifikatzeko modua; eta sortutako lanpostu bakoitzeko finantzaketa-modulua gaurkotu gabe dago -1998ko araudian aurreikusitako modulua da-.

f) 2010eko kapitaleko diru-laguntzaren kasuan -498.900 euro dira-, Tasubinsak inbertsio-gastua justifikatzen du inbertsioa eskatzeko aurkeztu zuten proiektuarekin bat ez datozen kontzeptuekin (guztizkoaren ehuneko 43aren kasuan). Gure ustez, inbertsioaren zati hori partzialki itzultzeko espedienteak ireki beharko litzateke.

Horrenbestez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak irizpide batzuk aplikatu zituen (lanpostuaren kontzeptua, plantilla handitzearena eta abar) -V.1.2 atalean zehazten dira-, zeinekin Ganbera hau ez baitago ados, zeren eta uste baitu ez direla diru-laguntza horiek emateko aplikatzeko den araudiaren araberrakoa. Halaber, aipatu beharra dago 2014an Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enplegu zentro berezietan inbertsioak finantzatzeko deialdia argitaratu duela, eta lanpostuen sorrera balorazio-irizpide gisa jaso duela; ez, ordea, baldintza gisa.

- Enplegu zentro berezien aurrekontu-orekarako laguntzen kasuan -defizita finantzatzeko laguntzak dira, eta diru-laguntzen guztizkoaren ehuneko bost egiten dute-, ez da berriaz definitzen zer josten den defizitatzat, eta ez da hura kuantifikatzen. Ez dago jasota nola kalkulatu den diru-laguntzaren zenbatekoa lortzeko erabili den modulua. Horri dagokionez, aipatu beharra dago diru-laguntza hori ez dela 2012tik ematen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak berriaz hori erabaki duelako.

Azken batean, Ganbera honek uste du PANAK, oro har, egoki eman eta kontrolatu zituela diru-laguntzak, eta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kasuan, diru-laguntza horiek aztertutako aldirian kudeatzeko, jarraitzeko eta kontrolatzeko sistemak, batzuetan, eskasak izan zirela, eta txosten honetan agerian jarritako ondorioak ekarri zituztela; alabaina, kontrol hori nabarmen hobetu da 2013tik aurrera.

IV.2. ANFASEK JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK (2009-2013)

Aztertutako aldian, Anfasek 3,41 milioi euro egiten duten diru-laguntzak jaso zituen Nafarroako Gobernutik. Hona xehetasunak:

Kap.	Erakunde finantzatzailea	Azalpena	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira, 2009-2013
4	PANA	Finantza-defiziterako laguntza berezia	0	300.000	0	0	0	300.000
		Etxebizitza-programa	497.026	224.116	40.065	41.230	41.500	843.937
		Laguntza goiztiarra	94.460	0	0	100.000	0	194.460
		Desgaituen entitateetan elkartegintza sustatzea	208.583	183.755	192.320	99.392	120.774	804.824
		Mendekotasunaren prebentziorako programetarako diru-laguntzak	73.042	105.811	120.425	152.017	149.460	600.755
		Oporretako programa	73.136	71.593	98.704	0	0	243.433
	NEZ	Boluntario sozialen programak	17.636	26.065	25.369	15.409	7.346	91.825
		Administrazio publikoekiko Irabazi asmorik gabeko kontratueterako diru-laguntza	39.625	28.119	43.545	3.283	0	114.572
	Nafarroako Foru Komunitatea	Kontratazioa sustatzeko diru-laguntza	0	46.407	0	0	0	46.407
		Boluntarioen prestakuntza-bilerak egiteko laguntza	4.550	2.400	0	0	0	6.950
		Osasun programa	8.808	7.695	8.859	10.419	8.464	44.245
Kirol entitateekiko akordioak eta laguntzak		3.172	3.878	3.927	3.974	2.991	17.942	
Lan osasuneko jardueretarako diru-laguntza		0	2.000	6.000	0	0	8.000	
		Gazte elkarten programetarako diru-laguntza	3.228	7.512	8.945	7.169	0	26.854
4. kapitulua, guztira. Transferentzia arruntak			1.023.266	1.009.352	548.158	432.892	330.535	3.344.204
7	Nafarroako Foru Komunitatea	Desgaituen kanpoko zentroak egokitzea	0	68.217	0	0	0	0
7. kapitulua, guztira. Kapital-transferentziak			0	68.217	0	0	0	68.217
Orokorra, guztira			1.023.266	1.077.569	548.158	432.892	330.535	3.412.421

Aurreko datuetatik nabarmentzekoa da diru-laguntzen ehuneko 98 transferentzia arruntei dagozkien eta gainerako ehuneko bira, berriz, kapital-transferentzietan. Diruz lagundutako guztizko zenbatekotik, ehuneko 90 PANAK eman zuen eta gainerako ehuneko bosta, berriz, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak.

Anfasek, gainera, etxebizitza programaren eta arreta goiztiarreko programaren zerbitzuak eman zituen, aurreko taulan bildutakoak, kontratuen bitartez. Gastu hori 2. kapituluan erregistratu zen, 3,34 milioi euroko balioarekin.

Gure lanean aztertutako lagina honakoek osatzen dute: etxebizitza programa eta arreta goiztiarra-rena (bai diru-laguntzak, bai kontratuak), defizit finantzarioa arintzeko diru-laguntza, elkartegintza sustatzeko diru-laguntza, eta autonomia sustatzeko eta mendekotasunaren prebentziorako programekin lotutako diru-laguntzak. Oro har, jasotako diru-laguntza guztien ehuneko 80 egiten dute, eta Nafarroako Gobernuarentzako guztizko gastuaren ehuneko 90, kontratuak kontuan hartuta.

Diru-laguntza horiei buruzko azterketaren laburpena txosten honetako 2. eranskinean kontsulta daiteke. Eginiko lanetik, oro har, honako alderdiak azpimarra daitezke:

- Jasotako diru-laguntzak aurreikusi zireneko jardueretara bideratu ziren.
- Defizit finantzarioa arintzeko aparteko laguntzari dagokionez –parlamentu-zuzenketa batez onetsi zen eta 2010eko Aurrekontu Orokorretan sartu zen, 300.000 euroko zenbatekoarekin–, hura justifikatzeko gasturik handiena sozietateen gaineko zerga izan zen, zeinak zergapetu baitzuen Anfasek Tasubinsari egindako diruz besteko ekarpen batetik lortutako errenta bat (204.009 euro). Lortutako errenta horrek salbuetsita behar zuen, gisa horretako elkarteetarako aplikatzekoa zaien araudiaren arabera. Bestalde, zerga horrek sortutako gastua ezin da diruz lagundu, Diru-laguntzari buruzko Foru Legeari jarraituz, baina PANAK hura efektibo egin zuen, zeren eta ulertu baitzuen horixe zela Parlamentuaren borondatea.

Atera ditugun ondorioak ikusirik, hauexek dira gure aholkuak:

- *Jasotako laguntzen egiaztagiri gisa aurkezten direnen datuak departamentuen artean aldatzeko prozedura normalizatu bat ezartzea, antzemandakoa bezalako egoerak gerta ez daitezen.*

- *Baldin eta berriz ere erabakitzen bada entitatearen baten defizita finantzatzea, berariaz definitzea zer ulertzen den defizitzat, eta kontzeptu hori aztertzea eta modu exhaustiboan kuantifikatzea, eta argiro ezartzea zein den finantzaketa-modulua.*

- *2010ean bidegabeki jasotako laguntzaren –lanpostuak proiektuetan inbertitzeko laguntzaren– itzulketa partziala exijitzea, zeren eta justifikazioaren zati bat ez baitzeturren bat Tasubinsak aurkeztutako proiektuarekin.*

- *Argiro ezartzea zein irizpide jarraituko diren diru-laguntzak emateko, eta diru-laguntza emateko ebazpenean haren jarraipena eta kontrola egiaztatu ahal izatea bideratzeko behar diren elementu guztiak sartzea.*

- *Amaitze edo hastear dauden kontratuen esleipenak garaiz izapidetzea, lege estaldurarik gabeko zerbitzurik eman ez dadin.*

- *Kontuan hartzea aurrekontu-legeak zein toki eta eginkizun duen foru antolamenduko gainerako legezko arauetik, eta, zehazki, Diru-laguntzei buruzko Foru Legeak ezarritako mugen kasu honetan, antolamendu indardunaren beharrik gabeko indargabetze banakakoak saihesteko.*

Azken batean, horrelako entitateek, eta bereziki Tasubinsak, egiten duten lan sozialaren garrantzia eta munta aitortuta –desgaitasuna duten ia 1.200 pertsonari lana ematen die–, bai eta entitateko kudeaketa-talde berriaren jarrera egokia, Ganbera honek uste du PANAK jarraitu egin behar duela hasita duen kontrola egiten, eta, halaber, Nafarroak Enplegu Zerbitzuak hasitako hobekuntza-bidean jarraitu behar duela, halako moduz non, legezketasunaren printzipioa beteta, lortuko baita baliabide publikoak ahal den modu onenean erabiltzea elkartasun sozialera orientatutako jarduerak egiteari dagokionez.

V. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA XEHAKATUA

Aurreko atalean azaldutako ondorioak lortzeko bidea eman duen lanaren azterketa xehakatu aurkeztuko da ondoren.

V.1. TASUBINSAK JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK (2009-2013)**V.1.1. Diru-laguntzen kuantifikazioa**

2009-2013 aldian, Tasubinsak 44,36 milioi euro jaso zituen. Hona xehetasunak:

Kap.	Erakunde finantzatzailea	Azalpena	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira, 2009-2013
4	PANA	Lanerako prestatzeko zentroarekiko hitzarmena	3.400.000	3.400.000	3.500.000	3.500.000	3.500.000	17.300.000
		Enplegu zentro bereziko lansarien kostua	2.329.112	3.361.218	3.150.742	3.061.626	3.102.568	15.005.266
	NEZ	Enplegu zentro berezien Gizarte Segurantzarentzako kuotak	661.704	2.829.294	-	-	-	3.490.998
		Enplegu zentro berezien aurrekontu-oreka	1.665.777	486.891	465.548	251.465	-	2.382.790
		Enplegu zentro berezietako babes-unitateak	553.199	537.145	527.668	541.871	539.930	2.699.813
		Enplegu zentro berezietako laguntza teknikoa	13.500	-	-	-	-	13.500
		Prestakuntza planak	19.452	18.200	-	2.760	-	37.652
		Gizarte-sentsibilizaziorako diru-laguntza	-	3.450	-	-	-	3.450
Nafarroako Foru Komunitatea	Erantzukizun sozial korporatiboaren sustapena	-	1.000	2.000	-	600	3.600	
4. kapitulua, guztira.	Transferentzia arruntak	8.642.744	10.637.199	7.645.958	7.357.722	7.143.098	41.426.720	
Nafarroako Foru Komunitatea	Inbertsioen homologatzea (jasogailua)	10.000	-	-	-	-	10.000	
	Lehiakortasuna sustatzea	-	-	-	11.631	-	11.631	
O-NOZ	Enplegu zentro berezietako inbertsioak	706.692	817.433	765.766	-	-	2.289.891	
	Enplegu zentro berezietan lanpostuak sortzeko inbertsioak	170.708	288.607	161.210	-	-	620.525	
7. kapitulua, guztira.	Kapital-transferentziak	887.400	1.106.040	926.976	11.631	-	2.932.047	
Orokorra, guztira		9.530.144	11.743.239	8.572.934	7.369.353	7.143.098	44.358.767	

Transferentzia arruntei dagokienez, honakoak dira berrikuspenerako laginean sartutako diru-laguntzak: PANAREN lanerako prestatzeko zentroaren hitzarmena eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enplegu zentro bereziak direla-eta emandako diru-laguntzak, laguntza teknikoari dagokiona kenduta, zeren eta haren zenbatekoa txikia baita (13.500 euro). Guztizkoaren ehuneko 99 egiten dute.

Kapital-transferentziei dagokienez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emandakoak aztertu ditugu, "Enplegu Zentro Berezietako diru-laguntzak" izeneko kontusailari dagozkionak (2010. eta 2011. urte osoak eta 2009. urteko ehuneko 85), bai eta "Enplegu zentro berezietan lanpostuak sortzeko inbertsioak" kontusailekoak ere, 2010ekoak eta 2011koak. Guztizkoaren ehuneko 90 egiten dute.

Guztizko laginak Tasubinsak aztertutako aldian jasotako diru-laguntzen ehuneko 99 hartzen du.

V.1.2. Jasotako diru-laguntzen azterketa

Aurrez azaldu dugun bezala, sozietate horrek lanerako prestatzeko zentroak eta enplegu zentro bereziak batera dituzten lantoki batzuk badauzka. Jarduera bakoitzak diru-laguntzak jasotzen ditu. Hurrengo ataletan aztertuko ditugu diru-laguntza horiek, aurrez finkatutako laginari jarraituz.

A) Lanerako prestatzeko zentroekiko hitzarmena

69/2008 Foru Dekretuak Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroa onetsi zuen. Hartan, "bermatu gabeko gizarte prestazioak" arautu ziren, horren barne direla gizarte zerbitzuetako entitateentzako diru-laguntzak, desgaitasuna duten pertsonen arloari dagozkionak, autonomia sustatzeko programen garapena indartzeko eta desgaitasuna duten pertsonen mendekotasunaren prebentziarako. Aurrez azaldu bezala, lanerako prestatzeko zentroek horrelako zereginetan jarduten dute.

Araudi horren eta Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen babesean, PANAK, 2006an, hitzarmen bat sinatu zuen Tasubinsarekin lanerako prestatzeko zentroak diruz laguntzeko; hiru milioi euroko hitzarmena zen. Hitzarmen horri gaur arte eutsi zaio (2014a barne) eta urtero gaurkotu da. PANARI 17,3 milioi euroko gastuak ekarri dizkio, aztertutako aldian, ondoren adierazi bezala:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Lanerako prestatzeko zentroekiko hitzarmena	3.400.000	3.400.000	3.500.000	3.500.000	3.500.000	17.300.000

Hitzarmen horiek aztertuta, honako alderdiak azpimarra ditzakegu:

- Lau unitate mota ezartzen dira lanerako prestatzeko zentroetan, eta horietako bakoitzean egin beharreko jarduerak zehazten dira.
- Urtero, arreta emateko langile-ratioak zehazten dira, eta haiek bete egin behar dira, hurrengo taulan, 2013ko adibidea hartuta, erakusten den bezala:

Lanerako prestatzeko zentroko unitate mota	Erabiltzaileei arreta emateko langileen batez besteko ratioa
Lanerako prestatzeko unitatea	Profesional bat 13,9 erabiltzaile bakoitzeko
Lanerako prestatzeko unitatea, lanerako gaikuntza hartzekoa	Profesional bat 13,9 erabiltzaile bakoitzeko
Lanerako prestatzeko unitatea, zahartze goiztiarrerakoa	Profesional bat 6 erabiltzaile bakoitzeko
Lanerako prestatzeko unitate berezia	Profesional bat 6 erabiltzaile bakoitzeko

• Jarduera egin izana egiaztatzen da hitzarmena sinatu ondoren erabiltzaileen eta kontratatutako pertsonen zerrenda bat aurkeztuz, non lanbide-kategoria eta lanerako prestatzeko zein zentrori atxikita dauden aipatzen baitira.

• Diru-laguntza bateragarria da jaso daitezkeen beste batzuekin, baldin eta jasotako zenbatekoak ez badu garatu beharreko jardueraren kostua gaunditzen.

• 2012ko eta 2013ko hitzarmenen justifikazioari dagokionez –Tasubinsak aurkeztu beharrekoa–, diru-laguntzen kudeatzaileen txostenetan adierazten denari jarraituz, honakoa nabarmendu beharra dago:

a) Hitzarmenak exijitzen zuen ekitaldi horretarako lanerako prestatzeko jarduera dela-eta emandako eta kobratutako diru-laguntzen guztizkoaren ziurtagiri bat aurkeztea. Ziurtagiri hori aurkeztu egin zen, baina Tasubinsa osoa hartuta, enplegu zentro bereziak eta lanerako prestatzeko zentroak bereizi gabe.

b) Hitzarmena arautzen zuen testuak exijitzen zuen kontabilitateko egoera-orri bereziak, behar bezala auditatuak, aurkeztea: batetik, lanerako prestatzeko zentroak, eta bestetik enplegu zentro bereziak. Soilik galeren eta irabazien kontua aurkeztu ziren bereizirik, logikoa den bezala, zeren eta ezin baitira kontabilitateko gainerako egoera-orriak bereizita aurkeztu.

c) 2013ko otsailean, behin-behineko justifikazioa aurkeztu zen, 2012ko gastuei zegokiena; bertan, lanerako prestatzeko zentroek 1.388.885 euroko galera ageri dute. 2013ko maiatzean, 2012ko galeren

eta irabazien kontua bereizita aurkeztu zenean –batetik, enplegu zentro bereziak eta bestetik lanerako prestatzeko zentroak–, azken horiek 785.873 euroko galera ageri dute.

600.000 euroko alde dago, gutxi gorabehera, zeina Tasubinsak justifikatu baitzuen "gastuak egozteko irizpideak aldatu izateagatik", nahiz eta horrek suposatzen zuen prozedura horiek 2010etik aldatu gabe zeudela.

B) Enplegu zentro berezien lansari-kostuak

Lanaren eta Gizarte Gaien Ministerioaren 1998ko Aginduak desgaitasuna duten pertsonak enplegu zentro berezietan eta langile autonomo gisa lanean integratzeko laguntzak eta diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen ditu.

Arau horren hitzaurrean esaten da onesten dela programa horren kudeaketa eskualdatuta daukaten autonomia erkidegoek bere dituzten eskumenak ezertan kendu gabe.

Arestian aipatutako 1998ko Ministerio Agindua kontuan hartuta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enplegu zentro berezietako lansari-kostuengatik diru-laguntzak eman zituen, bai ehuneko 50ekoak, bai 25ekoak, 2009rako, 2010erako eta 2011rako. Data horretatik aurrera, erakunde horrek diru-laguntzak ematen jarraitu zuen, ehuneko 50ekoak, eta, Estatuko arauetan zailtasun bereziak dituzten langileentzako ehuneko 25eko osagarriaren diru-laguntza kendu bazuen ere, Nafarroak, bere eskumenen barruan, diruz laguntzen jarraitu zuen 2012an eta 2013an.

Diru-laguntza horiek guztiek, aztertutako aldian, 15 milioi euroko gastua ekarri zioten Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, ondoren azaltzen den bezala:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Enplegu zentro berezietako lansari-kostuak	2.329.112	3.361.218	3.150.742	3.061.626	3.102.568	15.005.266

Diru-laguntza horien deialdiak aztertuta, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Diru-laguntzak emateko araubidea banakako ebaluazioan oinarritzen da.
- Diru-laguntzen ehuneko 50 Europako Gizarte Funtzak kofinantzatuta dago.
- Hilero, enplegu zentro bereziek ordaintzeko eskaria aurkeztuko dute, aurreko hilean desgaitasuna duten langileei ordaindutako lansariak justifikatuz, eta haien zerrrenda izenduna aurkeztuz, nominak eta ordaindu izatearen egiaztagiriak barne.
- Diru-laguntzak beste batzuekin bateragarriak dira, guztizko zenbatekoak langile bakoitzeko guztizko lansari-kostuaren 100eko 100a gainditzen ez duen bitartean.
- Deialdian exijitutako egiaztagiriak aurkezten dira.
- 2013an, PANAK eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak datuak alderatu ondoren, azken horrek kontzeptu hori dela-eta 2010-2013 aldian jasotako diru-laguntzen itzulketa partzialerako espedienteak izapidetu zituen; itzulketa horrek 250.595 euroko zenbatekoa egiten zuen, berandutza interesak barne. Aurreikusita dago Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak beste espediente bat irekitzea 2009an bidegabeki jasotako kopuruengatik, zeinak 39.271 euro gehi interesak eginen baitu, txosten honetako V.1.3 atalean zehazten den bezala.

Espediente horiek sortzeko arrazoia izan zen langile jakin batzuen lansari-kostuen gastua baino portzentaje handiagoa finantzatu izana, zeren eta Tasubinsak haietako batzuen nominak aurkeztu zituen jasotako bi diru-laguntza justifikatzeko; hori egitea bidezkoa da, diru-laguntza bateragarriak baitira, guztizkoaren 100eko 100 gainditzen ez den bitartean.

C) Enplegu zentro berezien Gizarte Segurantzarentzako kuotak

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Nafarroako enplegu zentro berezi guztietako langileen kuotetarako hobariei zegokien gastua erregistratu zuen, Tasubinsa barne zela. Tasubinsako langile desgaituen gizarte segurantzarentzako kuoten ordainketa dela-eta 2009-2013 aldian aitortutako betebeharrak 3,49 milioi euro egin zuten, hurrengo taulan erakusten den bezala:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Enplegu zentro berezien Gizarte Segurantzarentzako kuotak	661.704	2.829.294	-	-	-	3.490.998

2013ko apirilean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, lau urteko preskripzio epeak kontuan hartuta, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari eskatu zion kita zezala kontzeptu hori zela-eta 2010eko uztailetik zeukan zorra, eta 2009ko abendutik 2010eko abendura ordaindutakoa (ez aitortutako gastua) itzul zezala: 8,83 milioi euro ziren guztira. Horren arrazoia zen araudian izandako aldaketan ondoriozko gastua Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak hartu behar zuela bere gain.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak Nafarroako Gobernuaren aldeko erantzun zuen, ordaintzeko zegoen zorraren kitapena eta eskatutako zenbatekoaren itzulketa onartuz. Zenbateko horren barruan, aurreko 3,49 milioi euroko kopurua zegoen.

D) Enplegu zentro berezien aurrekontu-oreka

Aipatutako 1998ko Ministerio Aginduak diru-laguntza mota horretarako aurreikusten du zentro horien aurrekontua berronkatzea, adieraziz ezin izanen dituela estali Administrazioaren iritziz okerrekoa den kudeaketa batetik heldutako aurkako emaitzak.

Enplegu zentro berezien erregelamendua onesten duen 2273/1985 Errege Dekretuari jarraituz, diru-laguntza hori eman eta haren zenbatekoa finkatzen da. Arau horrek ezartzen du honako parametroak hartuko direla kontuan:

- Zentroaren jarduera, dimentsioa, egitura eta gerentzia.
- Plantillaren osaketa, arreta berezia eskainiz desgaitasuna duten langileek zentroko langileen guztizkoan egiten duten ehunekoari eta langileen desgaitasunaren izaerari eta graduari.
- Langileekin izenpetutako kontratuen modalitatea eta baldintzak.
- Zentroan gertatzen diren aldagai ekonomikoak.
- Zentroko babes-unitateak.

Diru-laguntza horren indarrez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2,38 milioi euro aitortu zituen aztertutako aldiko gastuetarako, honako xehetasun hauen arabera:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Enplegu zentro berezien aurrekontu-oreka	1.665.777	486.891	465.548	251.465	-	2.382.790

Aztertutako hitzarmenetatik, honako alderdiak nabarmendu daitezke:

- Diru-laguntzaren zenbatekoa zentroko plantillaren osaketaren arabera finkatzen da, eta desgaitasun-gradu eta -izaera jakin bat aitortuta dituzten pertsonen kopurua finantzatzen da. Urte bakoitzean modulu bat ezartzen da, eta hura bider aurreko pertsona kopurua eginez sortzen da diru-laguntza. Honakoa da, eurotan, modulu honek izan duen bilakaera:

	2009	2010	2011	2012
Enplegu zentro berezien aurrekontu-oreka	1.232	1.032	1.032	780 eta 1.440 bitartean

Ez dago jasota zein prozedura erabili den urte bakoitzean ezarritako finantzaketa-modulua kalkulatzeko.

- 2009an, aurreko moduluak ezarritako diru-laguntzaz gainera, hitzarmenaren gehigarri bat onetsi zen, non krisi ekonomikoa zentro horietan izaten ari zen eragina aipatzen baita eta 1.900 euroko diru-

laguntza osagarri bat ezartzen baita langile bakoitzeko, alde batera utzita zein desgaitasun gradu duen aitortua. Ez dago jasota kopuru horren kalkuluaren justifikazioa.

- Exijitzen da ezen zentroak behar adina erakuts dezala kalte-ordain ekonomikoaren beharrezana, honakoak aurkeztuz: azalpen memoria, diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua, egoeraren balantzea, ustiaketaren kuota eta beste edozein agiri, egoera ekonomikoa ezagutzea bideratzen duena.

- Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Tasubinsaren kontu auditatuak zeuzkan, baina ez dago jasota haiek aztertzen duen txostenik dagoenik, eta enplegu zentro berezien defizita ere ez dago kuantifikatua; gainera, ez dago zehaztuta ageri zer ulertzen den defizitzat.

Jo liteke defizita dela galeren eta irabazien kontuaren ustiaketaren emaitza, zergen aurretik lortutako emaitza, eragiketa jarraituetatik heldutako emaitza edo ekitaldiko emaitza. Ondoren, datu horiek erakusten ditugu, aztertutako urteetarako. Sozietatearen kontuetako auditorietan bildutako datuak dira.

	2009	2010	2011	2012
Ustiapeneko emaitza	-38.159	453.645	295.114	-272.389
Ustiaketaren emaitza. Enplegu zentro berezien oreka finantzariorako diru-laguntza.	-1.703.936	-33.246	-170.434	-523.854
Zerga aurreko emaitza	-355.122	246.234	13.924	-649.243
Ekitaldiko emaitza, eragiketa jarraituetatik eratorritakoa	-358.280	252.393	33.104	-649.243
Ekitaldiko emaitza	-358.280	252.393	33.104	-649.243
Enplegu zentro berezien oreka finantzariorako diru-laguntza	1.665.777	486.891	465.548	251.465

Ikusten den bezala, aintzat hartutako urte guztietan ageri da defizita, hura arintzeko emandako diru-laguntza deskontatzen bada; alabaina, zenbatekoa nabarmen aldatzen da erabilitako kontzeptuaren arabera. Horrek, halere, ez du zuzeneko eraginik ezarritako moduluan.

- Kontzesioak exijitzen du Tasubinsak aurkez dezala justifikazio-oroitidazki bat, jasotako diru-laguntzarekin egindako jarduerena. Kudeaketaren oroitidazkia baizik ez da ageri, ordea: sozietatearen kontuen zati bat da, eta nagusiki ekonomikoak diren datuak dauzka.

- Kontzesioetan ez da ezartzen zer den sozietate baten administrazioa defizitarioa izatea, edo hori nola neurtu behar den. Horri buruzko adierazleak ageri dira soilik 2012ko urtarriletik ekainerako diru-laguntza ematerakoan (likidezia-ratioak, kaudimena eta abar), baina ez dago jasota ekitaldi horretako diru-laguntza emateko aztertu direnik.

- 2012an, kontzeptu hori dela eta, soilik urtearen erdiarengatik laguntza ematen da, eta kentzea ebaki zen, lehentasuna emanez desgaitasuna duten pertsonekin lotura zuzenagoa duten beste diru-laguntza batzuei; esate baterako, lansariaren ehuneko 75eko diru-laguntza eustea erabaki zen.

Azken batean, defizitaren existentzia ageri duten kontu auditatuak jasota badaude ere, ez zen ezarri defizitzat zer ulertzen zen, ez dago jasota haren existentzia aztertu zenik –ez eta kuantifikatu zenik ere–, eta ez zen argitu, ezta ere, diru-laguntza kuantifikatzeko modulua nola ezarri; alabaina, 2012ko erdialdetik, gabezia horiek jada ez dira existitzen, laguntza hori kendu baita.

E) Enplegu zentro berezietako babes-unitateak

469/2006 Errege Dekretuak lehenengo aldiz erregulatu zituen babes-unitateak eta haiek osatzen duten langileen kontratazioko lansari-kostuen eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoaren kostuen diru-laguntza. Halaber, ezarri zen, Enplegu Zerbitzu Publikoak egindako kudeaketaren eskualdaketa beren gain hartua duten autonomia erkidegoek esparru hori ere kudeatu beharko dutela.

Aurrekoa kontuan hartuta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 2006ko ebazpen batek urte horretako enplegu zentro berezietako babes-unitateen diru-laguntzetarako deialdia onetsi zuen, eta hura da emandako diru-laguntzen oinarria (baita 2013ko diru-laguntzena ere). Aztertutako aldian diruz lagundutako kopurua 2,7 milioi eurokoa da, ondoren ikusten den bezala:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Enplegu zentro berezietako babes-unitateak	553.199	537.145	527.668	541.871	539.930	2.699.813

Diru-laguntza horiek aztertuta, honako alderdiak azpimarra ditzakegu:

- Onuradunak enplegu zentro bereziak izanen dira; horiek, besteak beste, lanbide-jarduerarako babes-unitate bat eduki beharko dute, eta unitate horren osaketa lanbide-kategoriako modulu edo ratio batzuei egokitu beharko zaie, desgaitasuna duten langileen kopuruaren arabera, ondoren ikusten den bezala:

Desgaitasuna duten langileen kopurua	Babes-unitateko langile kopurua	Lanbide-kategoria
15 arte	1	Erdi mailako teknikaria edo goi mailako teknikaria (gutxienez ere lanaldiaren % 20rekin)
	1	Laguntzaren arduraduna (lanaldi osoa)
16 eta 30 bitarte	1	Erdi mailako teknikaria edo goi mailako teknikaria (gutxienez ere lanaldiaren % 80rekin)
	2	Laguntzaren arduraduna (lanaldi osoa)
31 eta 45 bitarte	2	Erdi mailako teknikaria edo goi mailako teknikaria (bata lanaldi osoan, bestea gutxienez ere lanaldiaren % 50ekin)
	3	Laguntzaren arduraduna (lanaldi osoa)
46 eta 60 bitarte	2	Erdi mailako edo goi mailako teknikaria (lanaldi osoa)
	4	Laguntzaren arduraduna (lanaldi osoa)
61 eta 75 bitarte	3	Lanaldi osoko erdi mailako edo goi mailako bi teknikari, lanaldi osoarekin, eta beste bat gutxienez ere lanaldiaren % 50ekin
	5	Laguntzaren arduraduna (lanaldi osoa)
75 baino gehiago		Babes-unitatearen plantilla, aurreko irizpideen proportzioan

- Laguntzen azken hartzaileak enplegu zentro berezietako honako langile desgaituak dira:
 - a) Garuneko perlesia duten pertsonak, gaixotasun mentala duten pertsonak edo adimen-desgaitasuna duten pertsonak, 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradu aitortua dutenak.
 - b) Desgaitasun fisiko edo sentsoriala duten pertsonak izan ahalko dira, ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-gradu aitortua dutenak.
- Estatuko araudian bezala, ezartzen da diru-laguntzaren zenbatekoa urteko 1.200 eurokoa izanen dela desgaitasuna duen langile bakoitzeko, aurreko puntuan adierazitakoa. Langile horri kontratu mugagabea edo aldi baterakoa eginen zaio, sei hilabeterako edo gehiagorako.
- Diru-laguntza bateragarria izanen da beste batzuekin, guztizko kopuruak diruz lagundutako jardueraren guztizko kostua gainditzen ez duen bitartean.
- Diru-laguntzak norgehiagoka bidez emateko prozedura.
- Ezartzen da dokumentu bidez justifikatu beharko dela, diru-laguntza eman eta hurrengo urteko lehenengo bi hilabeteetan, aurreko urtean babes-unitateetako langileak kontratatuta egon direla, bai eta aurrez aipatutako langile desgaituen kopurua ere.
- Araudiak eskatzen dituen ziurtagiriak jasota daude, baina Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jasotako laguntza guztiak eta haiei dagozkien interesak itzultzeko espediente bat hasi zuen, 2.897.445 euro biltzen dituen (horiei gehitu behar zaizkie 2009. urteari dagozkion berandutza-interesak, zeinak txosten hau idazteko garaian kalkulatu gabe baitaude), V.I.3 atalean zehazten den bezala, zeren eta desgaitasuna duen langile bakoitzeko langileen nahitaezko ratioa ez baita bete.

Azkenik, adierazi beharra dago deialdi hori 2014rako aldatu egin dela. Aldatzen diren puntuetako batzuk kontzesio-prozedura, zeina banakako ebaluazio-araubidea izatera pasatzen den, eta dokumentazioa justifikatzeko epea.

F) Kapital-transferentziak

Aipatutako 1998ko Ministerio Aginduak gizarte intereseko enpleguak sortzen dituzten proiektuen finantzaketa partziala jasotzen zuen, plantilla zabaltzea suposatzen duen inbertsio finkoari aurre egiteko, desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak sortzearen bidez.

Agindu horrek ezartzen du diru-laguntza gehienez ere 12.020 eurokoa izanen dela izaera egonkorrez sortutako lanpostu bakoitzeko, baldin eta enplegu zentro bereziak bere plantillaren guztizkoaren aldean desgaitasuna duten langileen ehuneko 90a gainditzen bada (plantilla hori kalkulatzeko modua ere ezartzen da), eta 9.015 eurokoa, berriz, baldin eta portzentaje hori ehuneko 70aren eta 90aren bitartekoa bada, salbu eta aparteko arrazoiak tarteko berariaz baimentzen denean kopuru horiek gainditzea.

Enplegu zentro berezien inbertsio-eskabideek jaso beharko dituzte, besteak beste, proiektuaren oroitidazkia, inbertsio finkoko planaren xehetasun baloratua, fakturak eta "pro forma" erako aurrekontua jasoko duena, sortuko diren lanpostu-kopurua eta proiektuaren bideragarritasunari buruzko azterlan ekonomiko-finantzarioa.

Onuradunek, kontzesio-ebazpenak finkatzen duen epean egiaztatu beharko dute aurreikusitako inbertsio proiektua eginen dutela eta diru-laguntzaren xede ziren lanpostuak sortu dituztela; baldin eta alderdi horiek behar adina egiaztatzen ez badira, diru-laguntza guztiz edo partzialki itzuli beharko da.

Aplikatzekoa den araudi gisa ministerio agindu hori aipatuta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak hainbat diru-laguntza eman zituen, 2009tik 2013ra 2,92 milioi euro egiten dutenak. Inbertsioen hautatutako lagina, aztergai izan duguna, 2,63 milioi eurokoa da. Hona xehetasunak:

Aztertutako lagina	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Enplegu zentro berezietan lanpostuak sortzeko inbertsioak	600.000	1.106.040	926.976	-	-	2.633.016

Laginean bildutako diru-laguntzak aztertuta, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

2008ko inbertsio proiektua

Tasubinsak 2008ko otsailean inbertsio proiektu bat aurkeztu zuen, aipatutako ministerio-aginduaren babesean; bertan, guztira, 5,5 milioi euroko inbertsioa zehazten zuen, bai eta lanerako prestatzeko zentroetarako eta enplegu zentro berezietarako 143 lanpostu gehiago sortzeko aurreikuspena ere. Kontuan hartu beharra dago lanerako prestatzeko zentroetako pertsonak ez dutela lanpostu bat betetzen, baizik eta enplegu zentro berezietan sartu aurreko urrats batean daudela; horrenbestez, ez lirateke kontuan hartu beharko sortutako lanpostuak kontatzearen eraginetarako.

Tasubinsak adierazi zuen aurreikusitako zenbateko bat zela eta ahal zen eta pertsona gehieni enplegua eman nahi zitzaiela, baina jarduera zela-eta hori gomendagarria bazen. Azkenean, lpatzen zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Tasubinsan enplegua zela-eta gertatzen zen bilakaeraren informazio puntuala izanen zuela.

2008ko ekainean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ebazpena onetsi zen, zeinaren bidez Tasubinsari 2.452.800 euroko diru-laguntza eman zitzaion. Diru-laguntza hori 2008-2011 aldian ordainduko zitzaion (2008: 452.800 euro; 2009an: 600.000 euro; 2010ean: 700.000 euro; 2011n: 700.000 euro). Ebazpen hori aztertuta, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Diru-laguntza emateko aplikatzekoa den araudia aipatutako ministerioa agindua da.
- Diru-laguntza eman zen inbertsioari buruzko aurreikuspen baloratu batekin, baina ez aurrekontu batekin eta pro forma erako fakturekin, ministerio aginduak exijitzen zuen bezala.
- Ez dago jasota proiektuaren bideragarritasunari buruzko azterlan ekonomiko-finantzariorik dagoenik.
- Tasubinsak aurkeztutako inbertsio proiektua 5,5 milioi eurokoa da; horietatik, 2,45 milioi euro finantzatzea ebatzi zen.
- Kontzesio-ebazpenak ez du zehazten zein finantzaketa-modulu erabiliko den sortutako lanpostu bakoitzeko (1998koak ala haien gaurkotzeak; zein den Tasubinsaren plantillan dauden desgaituen portzentajea, zenbateko hori baldintzatzen duena, eta abar). Hori dela eta, ezin da kalkulatu zenbat lanpostu sortu beharko lituzkeen sozietate horrek.

- Estatuko arauaren arabera, kopuru horrek 204 lanpostu sortzea suposatuko balu ere (baldin eta suposatzen badugu desgaitasuna duten pertsonen portzentajeak ehuneko 90a gainditzen duela), kontzesioaren ebazpenean ezartzen da ezen Tasubinsak sortu beharko dituela soilik sei lanpostu berri; kopuru hori nabarmen aldentzen da kontzesioa oinarritzen duen araupetzean exijitu beharko zenetik, eta, horrenbestez, haren ez-betetze bat da.
- Ez da zehazten, aplikatzeko araudian ezarritakoaren aurka, Tasubinsak zein epetan sortu behar dituen lanpostuak, ez eta nola egiaztatu behar duen baldintza hori bete dela.
- Tasubinsak 2008-2011 aldiaren aurretik adierazitako diru-laguntzaren guztizkoa jaso zuen. Justifikazio-espeditentean, egindako inbertsioaren euskarri diren dokumentuak. Inbertsioa 3,08 milioi eurokoa da (aurreikusitakoaren ehuneko 56), baina ez dago jasota Tasubinsaren laguntza-eskaeran jasotako inbertsioaren gainerakoa egin denik. Inbertsio horren ehuneko 83 Burlatan bi industria-nabe eskuratzeari dagokio.
- Espeditentean ez dago jasota kontzesio-ebazpenean adierazitako sei lanpostuen sorrerari buruzko justifikaziorik.

2010eko eta 2011ko inbertsio proiektuak

Tasubinsak, aurreko ministerio-aginduen babesean, bai 2010ean, bai 2011n, diru-laguntza bat eskatu zuen enplegua sortzeko inbertsio-proiektu baterako, eta bi kasuetan laguntza hori eman zitzaion, 633.016 euro guttira.

Diru-laguntza horiek aztertuta, honako ondorioak atera ditugu:

- Aplikatu beharreko araudia aipatutako ministerio-agindua da, eta bertan babesten dira diru-laguntzak emateko.

- Bi kasuetan, diru-laguntza eman zen inbertsioari buruzko aurreikuspen baloratu batekin, baina ez aurrekontu batekin eta pro forma erako fakturekin, ministerio aginduak exijitzen zuen bezala; ez daude jasota proiektu horien bideragarritasunari buruzko kasuko azterlan ekonomiko-finantzarioak.

- 2010eko diru-laguntzei dagokienez:

- a) Kontzesio-ebazpenean, aipatzen da kontuan hartzen dela Tasubinsak aurkeztutako inbertsio proiektua 498.800 eurokoa dela, eta 406.040 euroko laguntza ematen zaio.

- b) Ebazpenak ez du zehazten zein finantzaketa-modulu erabiliko den sortutako lanpostu bakoitzeko (1998koak ala haien gaurkotzeak, Tasubinsaren plantillan dauden desgaituen portzentajea eta abar). Hori dela eta, ezin da kalkulatu zenbat lanpostu sortu behar zituen sozietate horrek.

- c) Estatuko arauaren arabera, kopuru horrek 34 lanpostu sortzea suposatuko balu ere (baldin eta suposatzen badugu desgaitasuna duten pertsonen portzentajeak ehuneko 90a gainditzen duela), kontzesioaren ebazpenean ez zaio Tasubinsari exijitzen inongo lanposturik sortzea, aplikatzekoa den araudiaren aurka, ez eta, horrenbestez, haiek sortzeko epea edo sorrera egiaztatzeko modua ere.

- d) Aurkeztutako proiektuaren arabera inbertitzea aurreikusita zegoen kopuruaren ziurtagiriak aurkeztu dira. Hala eta guztiz ere, aurkeztutako fakturen ehuneko 43 (218.271 euro) aurkeztutako proiektuan aurreikusi gabeko gastuei dagozkie; proiektu horren aldaketa ez dago jasota espeditentean.

Ganbera honek uste du zenbateko hori itzultzeko espeditentea abiatu beharko litzatekeela.

- e) Espeditentean ez dago jasota inongo lanposturik sortu izana.

- 2011ko diru-laguntzei dagokienez:

- a) Kontzesio-ebazpenak aipatzen du kontuan hartzen dela Tasubinsak aurkeztutako inbertsio proiektua 509.000 eurokoa dela, eta 226.976 euroko diru-laguntza ematen zaio.

- b) Ebazpenak ez du zehazten zein finantzaketa-modulu erabiliko den sortutako lanpostu bakoitzeko (1998koak ala haien gaurkotzeak, Tasubinsaren plantillan dauden desgaituen portzentajea eta abar). Hori dela eta, oraingoan ere ezin da kalkulatu zenbat lanpostu sortu behar zituen sozietate horrek.

- c) Estatuko arauaren arabera, kopuru horrek 19 lanpostu sortzea suposatuko balu ere (baldin eta suposatzen badugu desgaitasuna duten pertsonen portzentajeak ehuneko 90a gainditzen duela), kon-

tzesioaren ebazpenean ez zaio Tasubinsari exijitzen inongo lanposturik sortzea, aplikatzekoa den araudiaren aurka, ez eta, horrenbestez, haiek sortzeko epea edo sorrera egiaztatzeko modua ere.

d) Inbertsio gastuei buruzko ziurtagiriak aurkezten dira, 284.379 euro egiten dutenak; horrek diru-laguntza eskatzeko proiektuan aurreikusitakoaren ehuneko 56 egiten du. Ez dago jasota inbertsioaren gainerakoa egin denik.

e) Espedientean ez dago jasota laguntza horrekin inongo lanposturik sortu izana.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuari horri buruz galdetuta, erakunde horrek adierazi digu honakoak izan zirela diru-laguntza horiek emateko eta Tasubinsak bere betebeharrak beteak zituela jotzeko jarraitutako irizpideak:

- Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2008-2013 aldian egindako kontratazioen zerrenda bat dauka, non desgaitasuna duten 186 pertsona agertzen baitira. Lanpostuaren kontzeptua eta kontratuarena parekatzen dira, kontuan hartu gabe lanpostu bat plantillako postu bat dela.

- Jotzen dute enplegu egonkorra dela sei hilabetekoa edo hortik gorakoa, desgaitasuna duten pertsonen lan-harremanaren berezitasuna dela eta.

- Ez da kontuan hartzen sortutako enplegu garbia, kontratazioak baizik; hau da, enplegu gordina da aintzat hartzen dena, suntsitutakoa kendu gabe.

- Ez dakite Tasubinsak bere plantilla nola antolatzen duen, eta, horrenbestez, ezin dute jakin lanpostu bat pertsona batek baino gehiagok bete duten urtean zehar; horrek, izan ere, urteko kontratu bat baino gehiago suposatuko luke kontaktaren eraginetarako.

- Ulertzen da moduluaren zenbatekoa KPIaren arabera gaurkotu beharra dagoela, nahiz eta ez kontzesio-ebazpenetan, ez aplikatzekoa den araudian halakorik ez aipatu; horrenbestez, Tasubinsak jasotako diru-laguntzekin guztira 184 lanpostu sortu behar zituen.

Diru-laguntza horiek emateko ebazpenak 1998ko ministerio aginduaren arabera ematen direla kontuan hartuta, honakoa da Ganbera honen iritzia:

- Diru-laguntzak eman dira plantillaren zabalkuntzak finantzatzeko, eta horrek esan nahi du lanpostuen igoera garbia egon beharra dagoela.

Horri dagokionez, aipatu beharra dago Tasubinsaren urteko kontu auditatuen oroitidazkitik ondoriotzatzen dela langile kopuruak 19 pertsonatan egin duela gora 2007ko abenduaren 31tik 2013ra.

- Sei hilabeteko kontratu batek ez du egonkortasunik.

- Ministerio-aginduan ez da ezartzen lanpostu bakoitzeko finantzaketa-modulua gaurkatzeko aukerarik, ez eta horretarako erabili behar den prozedura ere.

Gure iritzia da ezen, **azken batean**, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jarraitutako irizpideak, diru-laguntza horiek emateko garaian, ez zirela izan, oro har, aplikatzekoa zen araudiaren arabekoak. Kontzesio-ebazpenetatik bakarrean ere ez dira haiek aipatzen, eta kasuko espedienteetan ere ez dira ageri. Bestalde, nabarmendu beharra dago 2014an desgaituei zuzendutako enplegua sustatzeko inbertsioak finantzatzeko deialdia argitaratu dela, eta bertan lanpostuen sorrera balorazio-irizpidea dela, ez baldintza.

V.1.3. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak irekitako itzulketa espedienteak

Ondoren, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak hasitako bi itzulketa-espediente aztertzen ditugu. Haien bidez, Tasubinsari eskatzen zaio enplegu zerbitzu berezietako langile desgaituen lansari-kostuak ordaintzeko emandako laguntzen parte bat itzul dezala; halaber, eskatzen zaio guztiz itzul dezala BU finantzatzeko emandako diru-laguntza.

A) Enplegu zentro berezien lansari-kostuen itzulketa partziala

V.1.2 atalean jada deskribatu den bezala, Tasubinsari diru-laguntza eman zitzaion enplegu zentro berezietako langile desgaituen lansari-kostuak estaltzeko. Lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 50 egiten zuen diru-laguntza horrek, eta portzentaje hori ehuneko 75era iristen zen kasu batzuetan. Diru-laguntza hori justifikatzeko, langileen zerrenda bat aurkeztu behar zen, eta hala dago jasota kasuko espedienteetan.

Bestalde lanerako prestatzeko zentroak finantzatzeko jasotako zenbatekoa justifikatzeko, PANAK zentro horietan lan egiten zuten langileen zerrenda bat jasotzen zuen, egiten zuten lanaldiaren portzentajearekin.

2013an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskatuta, PANAK emandako lanerako prestatzeko zentroen hitzarmenetara Tasubinsak aurkeztutako egiaztagirien datuak alderatu ziren Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako lansari-kostuekin. 2013an, datu-alderaketa hori egin ondoren, PANAK txosten bat egin zuen Tasubinsak bere lanerako prestatzeko zentroak garatzeko 2012rako eta 2013rako jasotako diru-laguntzen justifikazio zuzenari buruz.

Txosten horretan jasotzen da finantzatzen diren Tasubinsaren lanerako prestatzeko zentro batzuk Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako enplegu zentro berezien toki berean daudela, eta honakoa esaten da:

"...Nafarroako Administrazio Publikoak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzak direla-eta dauzkan konprobaketa- eta kontrol-betebeharrari jarraituz, eta kasuan kasuko programetan diruz lagundutako funtsen aplikazio zuzenari begira, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak PANARI informatu dio Tasubinsak enplegu zentro berezietarako kontratatuta dauzkan pertsonen nominei buruz. Zerrenda horretan nomina batzuk ageri dira PANAK emandako diru-laguntzen gastu-egiaztagiri gisa aurkeztu diren pertsonen izenean; horrek berarekin ekar lezake entitateak finantzaketa gehiegi jasotzea, baldin eta langile batzuen nomina egiaztagiri moduan bi erakunde publikoei aurkeztu bazaie, eta langile bakoitzari egotzitako lanaldiaren baturak gainditzen badu lanaldi horren 100eko 100a edo diruz lagun daitekeen lanaldi horren portzentajea..."

Txostenean, gehiegizko finantzaketa jasotzearen arrazoi izan daitezkeen pertsonen zerrenda bat ageri da, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuari alderdi hori argitzeko eta egiazki justifikatutako kopurutik gora jasotakoa itzultzeko erreklamazioa egin dezan, berandutza interesak ere eskatuta.

Aurreko puntua egiaztatuta, 2013ko azaroan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailerak bidegabeki jasotako diru-laguntzen itzulketa partzialerako espedientea hasi zuen. 27.879 euro egiten du itzulketa horrek.

Lortutako emaitzak ikusita, aurreko urteak aztertu ziren, eta ondorio berdinetara iritsi zen. Horrenbestez, 2014ko urtarrilean, itzulketa-espeditenteak hasi ziren, 2010-2013 urteetarako. Gaur egun jada amaituta daude.

Gainera, 2014ko urrian, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari jakinarazi zizkion antzemandako gabeziak, eta aurreikusita dago departamentu horrek kontabilitate-erantzukizuneko espediente administratibo bat hastea 2009. urteari dagozkion kopuruak exijitzeko.

Tasubinsak gutzira itzuli behar duen kopurua 289.866 eurokoa da. Honakoa da haren urtez urteko xehakatzeara:

Urtea	Laguntzaren zenbatekoa	Berandutza interesak
2009	39.271	(*)
2010	83.205	12.119
2011	59.666	6.312
2012	57.191	3.420
2013	27.879	803
Guztira	267.212	22.654

(*) Kopuru horiei berandutza-interesak gehitu beharko litzaizkieke; txosten hau idazteko egunean, ordea, ezezagunak dira.

2014ko maiatzean, Tasubinsak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen ordura arte existitzen ziren itzulketa espedienteen aurka. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak ezetsi egin zuen, ordea.

B) Babes-unitateei emandako diru-laguntza osoa itzultzea

Babes-unitateentzako diru-laguntzak, V.1.2 atalean azaldu bezala, dauden langile desgaituen kopuruaren araberrako kategoria profesionaleko modulu edo ratioak betetzearen baldintzapean zeuden.

Aurreko atalean azaldutako gabeziak antzeman ondoren, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskatuta, Tasubinsak lanerako prestatzeko zentroyen hitzarmenatarako eta babes-unitateetako langileen finantzaketarako egindako egiaztapenak, hurrenez hurren PANAK eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emandakoak, alderatu ziren.

2014ko apirilean, PANAK txosten bat eman zuen, aurreko atalekoen antzeko terminoetan, non zehazten baita pertsona berak aurkeztu direla bai lanerako prestatzeko zentroyen hitzarmenen egiaztapenerako, bai Nafarroako Enplegu Zerbitzuak babes-unitateei emandako diru-laguntzen egiaztapenatarako. Berriz eskatzen da dokumentazioa aztertzeko eta, kasua bada, Tasubinsak bidegabeko jasotako kopuruak itzultzeko prozesura hasteko.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak PANAK aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu zuen eta berretsi zuen pertsona batzuen nominak aurkeztuak zirela bai lanerako prestatzeko zentroyen hitzarmenatarako, bai babes-unitateen finantzaketarako; zehazki, 2009-2014 urteetan honakoak ziren bikoiztutako pertsonen kopuruak:

	2009	2010	2011	2012	2013
Bikoiztuta ageri diren pertsonen kopurua	34	30	29	26	32

Babes-unitateentzako diru-laguntzarako baldintza zenez langile desgaitu bakoitzeko langile teknikarien ratio batzuk betetzea eta baldintza hori ez denez bete, langile horiek lanerako prestatzeko zentroetan ere lanean ari zirelako, ekainean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak espedienteak hasi zituen, babes-unitateak zirela-eta 2010-2013 aldian Tasubinsak jasotako diru-laguntzak guztiz itzul zitezzen. Txosten hau idazteko garaian, espediente horiek jada amaituta daude.

Aurreko kasuan bezala, 2014ko urrian, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari jakinarazi zizkion antzemandako gabeziak, eta aurreikusita dago kontabilitate-erantzukizuneko espediente administratibo bat hasia 2009. urteari dagozkion kopuruak exijitzeko.

Itzuli beharreko kopuruak eta berandutza-interesak 2.897.445 euro egiten dute, honako xehakizaren arabera:

Urtea	Itzuli beharreko zenbatekoa	Berandutza interesak
2009	545.695	(*)
2010	532.224	83.907
2011	535.200	61.365
2012	539.930	39.991
2013	542.400	16.733
Guztira	2.695.449	201.996

(*) Kopuru horiei berandutza-interesak gehitu beharko litzaizkieke; txosten hau idazteko egunean, ordea, ezezagunak dira.

Azken batez, jarduketa horietatik erator litezkeen bestelako erantzukizunak kendu gabe, aurreko ataletan deskribatutako kontzeptuak direla-eta Tasubinsak itzuli beharreko guztizko kopurua 3.187.311 eurokoa da, gehi 2009. urteari dagozkion berandutza-interesak.

Txosten hau idazteko garaian, Tasubinsak Nafarroako Gobernuari 2012ko lansari-kostuengatik bidegabeki jasotako laguntzei dagokien kopurua itzuli dio, bai eta babes-unitateetako 2013ko langileak ordaintzekoak ere, zeinek 619.744 euro egiten baitute. Gainerakorako, Nafarroako Gobernuak Tasubinsari zorraren geroratze bat ematea erabaki zuen, bost urterakoa.

V.2. ANFASEK JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK (2009-2013)

V.2.1. Diru-laguntzen kuantifikazioa

2009-2013 aldian, Anfasek 3,41 milioi euro jaso zituen. Hona xehetasunak:

Kap.	Erakunde finantza- tzailea	Azalpena	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira, 2009-2013
		Finantza-defiziterako laguntza berezia	0	300.000	0	0	0	300.000
		Etxebizitza-programa	497.026	224.116	40.065	41.230	41.500	843.937
		Laguntza goiztiarra	94.460	0	0	100.000	0	194.460
	PANA	Desgaituen entitateetan elkartegintza sustatzea	208.583	183.755	192.320	99.392	120.774	804.824
		Mendekotasunaren prebentziorako programetarako diru-laguntzak	73.042	105.811	120.425	152.017	149.460	600.755
		Oporretako programa	73.136	71.593	98.704	0	0	243.433
		Boluntario sozialen programak	17.636	26.065	25.369	15.409	7.346	91.825
4	NEZ	Administrazio publikoekiko Irabazi asmorik gabeko kontratueterako diru-laguntza	39.625	28.119	43.545	3.283	0	114.572
		Kontratazioa sustatzeko diru-laguntza	0	46.407	0	0	0	46.407
		Boluntarioen prestakuntza-bilerak egiteko laguntza	4.550	2.400	0	0	0	6.950
		Osasun programa	8.808	7.695	8.859	10.419	8.464	44.245
		Kirol entitateekiko akordioak eta laguntzak	3.172	3.878	3.927	3.974	2.991	17.942
		Lan osasuneko jardueretarako diru-laguntza	0	2.000	6.000	0	0	8.000
		Gazte elkarten programetarako diru-laguntza	3.228	7.512	8.945	7.169	0	26.854
4.		kapitulua, guztira. Transferentzia arruntak	1.023.266	1.009.352	548.158	432.892	330.535	3.344.204
7	Nafarroako Foru Komunitatea	Desgaituen kanpoko zentroak egokitzea	0	68.217	0	0	0	0
7.		kapitulua, guztira. Kapital-transferentziak	0	68.217	0	0	0	68.217
		Orokorra, guztira	1.023.266	1.077.569	548.158	432.892	330.535	3.412.421

Jada aipatu dugun bezala, Anfasek, halaber, laguntza goiztiarreko zerbitzuak eta etxebizitza-programari dagozkionak ere eman zituen, aztertutako aldiaren zati batean kontratuak eginez, 3,34 milioi eurokoak; halaber, Nafarroak zenbait udalen diru-laguntza edo dohaintzak jaso zituen, 364.266 euro egiten dutenak.

Etxebizitzarako eta arreta goiztiarrerako programen garrantzi kuantitatiboa dela eta, biak laginean sartu ziren, eta zerbitzu horiek emateko egindako kontratuak ere aztertu ziren. Gainera, aztertu dira bai finantza-defizita estaltzeko 2010eko laguntza berezia, bai PANAK jasotako diru-laguntza, elkartegintza sustatzekoa eta autonomia sustatu eta menpetasunaren prebentziorako programetarakoa.

Guztira, hautatutako laginari dagokion gastuak jasotako diru-laguntzen ehuneko 80 egiten du, bai eta Anfasek jasotako funts guztien ehuneko 90 ere, baldin eta entitatearekin egindako kontratuak kontuan hartzen badira.

Bestalde, aztertu dugu ea 15 toki entitatek emandako diru-laguntzak –txosten honetako II.2 atalean adierazitako guztiaren ehuneko 80 egiten dute aldi horretan– bat ote datozen Anfasek emandako informazioarekin.

V.2.2. Jasotako diru-laguntzen azterketa

A) Etxebizitza-programa

69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Zerbitzuen Zorroak gizarte zerbitzuen sistema publikoak prestazio bermatu moduan definitzen du eskubide subjektibo gisa eskatu ahal dena; eta ezartzen du, gainera, bermatu gabeko prestazioa izanen dela aurrekontuan dirua dagoenean soilik eskatu ahal izanen dena.

Prestazio bermatuen artean daude etxebizitza funtzional/tutoretzapekoak, zeinak etxebizitza normalizatu batean emandako zerbitzuak baitira, non harremanen eta bizikidetzaren dinamika familiakoaren antzekoa baita, bai eta arreta integrala ere, autonomia pertsonalari eutsi edo hobetzeko oinarritzko beharrei erantzuteko, eta gizarteratzea eta parte-hartze soziala errazteko. Zerbitzu horren onura har dezaketen pertsonak dira 18 eta 65 urte bitarte izan eta desgaitasun fisiko edo/eta adimenekoa dutenak edo/eta garuneko lesioa dutenak.

Sartzeko baldintzak honakoak dira, besteak beste: eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko gainbegiratzea eta tutoretza eta ehuneko 55eko edo goragoko minusbaliotasun maila aitortua izatea.

Prestazio bermatu gabeak ere zerbitzu hori biltzen dute, baina baldintza batzuk aldatzen dira; esate baterako, minusbaliotasun gradua adierazten duena, zeinak ehuneko 33koa edo gorakoa izan beharko baitu.

Zerbitzu honek, bermatua izan ala ez izan, erabiltzaileak ordainketan parte hartzea eskatzen du.

Nafarroan, zerbitzu hori ematen duten hainbat etxebizitza badaude. Zehazki, bat Barañainen dago, eta Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa da. Haren kudeaketaz Anfas arduratzen da 2003tik lau plaza-ekin; beste bi Zangozan (12 plaza) eta Tafallan (11 plaza) daude, horiek ere Anfasenak. 2004tik eta 2007tik funtzionatzen dute, hurrenez hurren.

2010eko azarora arte, Anfasi zerbitzu horien prestazioa diru-laguntza izendun baten bitartez ordaintzen zitzaion. Hitzarmen baten bidez gauzatzen zen diru-laguntza hori.

2010eko amaieran, laguntza kontratu bat izenpetu zen Anfasekin Zangozako eta Tafallako etxebizitzak kudeatzeko; Barañaingo etxebizitzan ematen den zerbitzua finantzatzen lagundu da, gaur arte, arestian aipatu dugun hitzarmenaren bitartez.

Azken batean, aztertutako aldian, egindako gastuaren kontabilitate-erregistroa, eurotan, zerbitzu hori emateari lotu zitzaion. Hona xehetasunak:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
2. kapitulua. Etxebizitza programa	-	192.816	475.599	476.051	475.790	1.620.256
4. kapitulua. Etxebizitza programa	497.026	224.116	40.065	41.230	41.500	843.937
Gastua, guztira	497.026	416.932	515.664	517.281	517.290	2.464.193

Ikusten den bezala, aldaketa bat badago zerbitzu horiek kontabilizatzeko irizpidean, kontratuen gauzatzetik heldu diren zerbitzu gisa kontabilizatzen baitira (gastuen 2. kapituluko erregistroa), hitzarmenak gauzatzearen bidetik kontabilizatu beharrean (gastuen 4. kapituluko erregistroa).

Barañainekin sinatutako hitzarmenen izapidetzea eta exekuzioa aztertuta, ondoriozta daiteke Anfasek behar bezala aurkeztu zituela exijitutako ziurtagiri guztiak; halere, nabarmendu beharra dago 2012ko hitzarmenean, kontu-hartzailetzak premiatu zuela zerbitzua kontratu bidez kudeatzera, Zangozako eta Tafallako etxebizitzan kasuan egiten den bezala, eta ez diru-laguntza izendun baten bitartez.

2010eko azaroaren 30ean Anfasekin izenpetutako kontratua, Zangozako eta Tafallako etxebizitzak kudeatzeko egin zena eta 2014ra arte urtez urte luzatzen joan dena, Europar publikizaterik egin gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetu zen. Honakoak izan ziren prozedura hori erabiltzeko arrazoiak: Anfasek zerbitzu horiek ematen 2004tik 2007ra erakutsitako eraginkortasuna; Anfas arreta hori gara dezakeen entitate bakarra dela jotzea, zeren eta etxebizitza horien jabea baita; etxebizitzak dauden eremuetan beste erakunderik ez egotea zerbitzu horiek emateko; eta erabiltzaileak inguru-neari egokituta egotea, zeina arrazoi garrantzitsua baita erabiltzaile horien profila dela-eta.

Espedientea aztertuta, ondoriozta daiteke ezen, oro har, dagoen araudiaren arabera izapidetu zela; hala eta guztiz ere, 2010eko uztailetik, orduan amaitu baitzen hitzarmena, kontratua 2010eko azaroan sinatu zen arte, Anfasek zerbitzua ematen jarraitu zuela legezko estaldurarik gabe. Hori gorabehera, PANAK Anfasi aldi horretan emandako zerbitzuak ordaindu zizkion, "*bidegabeko aberastea*" deitutako teoriar oinarrituta.

4. kapitulua. Arreta goiztiarreko programa

Arreta goiztiarra Gizarte Zerbitzuen Zorroan prestazio bermatu moduan aitortuta dago. Estimulazio eta errehabilitazio programak eskaintzen ditu, garapeneko nahasteak edo haiek edukitzeko arriskua duten zero eta hiru urte arteko haurren beharrian iragankor nahiz iraunkorrei erantzuna emate aldera. Kasu honetan, erabiltzaileak ez du ordainketan laguntzen.

Aurreko kasuan bezala, PANAK arreta mota horrek dakarkion gastua hainbat kapitulutan kontabilizatu du aztertutako aldian. Hartara, 2009ko lehenengo zazpi hilabeteetan, lankidetza hitzarmen bat

formalizatu zen, eta Anfasi diru bidezko prestazio bat eman zitzaion (zeinari ezin baitzaio "diru-laguntza" esan lege eraginetarako), eta gastua 4. kapituluan erregistratu zen.

2009ko irailean, laguntza-kontratu bat izenpetu zen Foru Erkidegoan zerbitzu hori emateko, Iruña eta Iruñerria kenduta, 2010eko abenduaren 31ra arte. Alabaina, 2013ko irailera arte luza zitekeen kontratu hori, eta halaxe egin zen. Prozedura irekiaren eta eskaintza onuragarrienaren irizpidea erabili zen, eta Anfas baizik ez zen aurkeztu. Hilabeteko 32.059 prezioa eskaini zen, eta kopuru horri eutsi zitzaion kontratuak iraun zuen denbora guztian.

Anfasi aztertutako aldian zerbitzu hori emateagatik 1,91 milioi euro ordaindu zitzaizkion aztertutako aldian. Hona xehetasunak:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
2. kapitulua. Arreta goiztiarreko programa	137.066	385.376	397.463	397.463	397.463	1.714.832
4. kapitulua. Arreta goiztiarreko programa	94.460	-	-	100.000	-	194.460
Gastua, guztira	231.526	385.376	397.463	497.463	397.463	1.909.292

Kontratuak aztertuta, ondorioztatzen da ezen, oro har, aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu direla eta gastuak zuzen kontabilizatuta daudela; halere, kontratua 2013ko irailean amaitu zen, eta ez zen besterik izenpetu 2014ko martxora arte. Hori gorabehera, Anfasek zerbitzua ematen jarraitu zuen, eta, horrenbestez, PANAk hura ordaindu zuen "*bidegabeko aberastearen*" doktrina aplikatuta.

2009ko irailetik aurrera gastua gastuen 4. kapituluan kontabilizatzeari utzi zitzaion arren, 2012an 100.000 euro kontabilizatzen jarraitu zen kapitulu horretan, arreta goiztiarrerako kontusail batean. Horiek aztertuta, ondoko alderdiak nabarmentzen ditugu:

- Diru-laguntza eragin zuen deialdia 2012ko abenduan argitaratu zen; haren xedea zen 2012. urtean zehar hiru eta sei urte bitarteko desgaituentzako arreta goiztiarreko programak garatzea. Horri dagokionez, aipatu beharra dago hori ez dela Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako zerbitzu bat; izan ere, Nafarroako Gobernuaren Arreta Goiztiarraren Gidari jarraituz, hura ematea Hezkuntza Departamentuaren eskumena da.

- Hiru entitate aurkeztu ziren (horietako bat Anfas zen), beren programekin. Kontzesiorako erabili zen prozedura norgehiagokako araubidea izan zen.

- Anfas izan zen deialdi horren onuradun bakarra, 100.000 euroekin, zeren eta eskaintzetako bat ez baitzen iritsi puntuetan exijitzen zen gutxienez; bestearentzat, ordea, ez zen behar adinako aurrekontu-krediturik egon.

- Deialdiko klausuletako batek honakoa zioen:

"...programen hartzaileak mendetasuna dutela baloratu diren pertsonak izanen dira...".

Espedientean kontu-hartzailearen txosten bat badago, etete-izaerako eragozpen-ohar batekin, zeinak eragin baitzuen espedientea kudeatzaileari itzultzea; izan ere, egiaztatu zen aurkeztutako hiru eskaintzetatik bakarrak ere ez zuela baldintza hori betetzen.

- Kudeatzaileak desadostasun txostena eman zuen, kontu-hartzailearen eragozpen-oharra barne, eta honakoa adierazi zuen:

"...klausula deuseza dela jo beharra dago, zeren eta eta ez baitu inongo arau-euskarririk, zeinetatik ondorioztatu beharko den entitate interesdunari haren betetzea exijitu behar zaienik...". *"...3 eta 6 urte arteko adingabeen mendetasunaren balorazioari dagokionez... praktikan ez da gertatzen... 6 urtetik beherakoei ez zaie, oro har, mendetasuna baloratzen..."*.

Halaber, aipatzen zen ezen, ikusita hiru eskaintzek atal horretan zero puntu lortuak zituztela, klausula hori kentzeak ez zuela aldarazten lortutako puntuen kopurua, eta esleipena egokia zela.

- Deigarri gertatzen da horrelako programak egiteko diru-laguntza ez dela gehiagotan eman aztertutako aldian (2009-2013), denboran finantzaketa iraunkorra gertatzen den beste prestazio batzuekin gertatzen denaz bestera.

C) Elkartegintzaren sustapena.

Nafarroako Gobernuaren Gizarte Zerbitzuen Zorroak prestazio bermatu gabeko gisa jasotzen ditu gizarte zerbitzuen arloko entitateei desgaitasunaren duten pertsonentzat emandako diru-laguntzak, besteak beste, irabazi asmorik gabeko entitateetan elkartegintza sustatzeko.

Aurrekoa eta Diru-laguntzei buruzko Foru Legea kontuan hartuta, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren 463/2008 Foru Aginduak elkartegintza sustatzeko diru-laguntzak arautu zituen, desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte ekimeneko entitateentzat. Agindu horretan aipatzen da desgaitasuna duten pertsonen elkartegintza gizarte intereseko gai bat dela eta horrelako diru-laguntzak denboran behar adina egonkortasuna eduki behar dutela. Norgehiagoka ez da aplikatzeko-tzat jotzen, zeren eta ez baitu zentzurik, elkarrekin, elkarre izate hutsarengatik eta esparru horretan jarduteagatik, Administrazioaren sustapen-jarduera merezi baitute.

Agindua, zenbait alderditan, 2010ean eta 2012ko urtarrilean aldatu zen. Halaber, 2012ko abenduan, 679/2012 Foru Agindua indargabe utzi zen. Hitzaurrean, honakoa aipatzen zen:

“...Egungo egoera ekonomikoa ikusirik, beharrezkoa da oinarri arautzaile horiek indarrik gabe uztea, eta elkartegintza sustatzeko diru-laguntzetarako deialdiak urtero onestea, ekitaldi bakoitzean erabilgarri dagoen kredituaren arabera doituak...”.

Behin hura indargabe utzita, 206/2013 Foru Aginduak elkartegintza sustatzeko 2013rako diru-laguntza eman zuen.

Aipatutako foru aginduen indarrez, PANAK Anfasen aldeko gastu-betebehar batzuk aitortu zituen, guztira 804.824 euro egiten zutenak, aztertutako aldian. Hona xehetasunak:

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Elkarrekin osatzearen sustapena	208.583	183.755	192.320	99.392	120.774	804.824

Honakoak dira diruz laguntzekoak diren kontzeptuak: elkartegintzaren sustapenari atxikitako langileen gastuak (diplomaduna eta administraria), kategoriaren arabera ezarritako gehieneko batekin; arau orokor gisa, jarduera hori aurrera eramateko behar diren zuzeneko eta zeharkako funtzionamendu-gastu errealean ehuneko 25. Alokairua dela eta, ordea, kostuaren ehuneko 40ko diru-laguntza ematen da (urtean 10.800 euroko kopurua gainditu gabe).

Deialdien eta diru-laguntza horren kontzesioen azterketatik ondoriozta daiteke ezen, orokorrean, aplikatzekoa den araudia betetzen dela, aurreikusitako jarduerara bideratu zirela eta haien kontrola egokia izan zela.

D) Autonomia sustatzeko eta mendetasunaren prebentziorako programa egitea.

Aurreko kasuan bezala, Gizarte Zerbitzuen Zorroak prestazio bermatu gabe gisa jasotzen ditu mendetasuna duten pertsonen arloko gizarte zerbitzuetako entitateei emandako diru-laguntzak, mendetasuna duten pertsonen autonomia pertsonala sustatu eta mendetasunari aurrea hartzekoak.

Aztertutako aldian, diru-laguntzak eman zitzaizkien desgaitasuna duten pertsonen arloko gizarte ekimeneko entitateei, autonomia sustatzeko eta mendetasunari aurrea hartzeko programak egiteko, urteko deialdi batzuen bitartez.

PANAK 2009tik 2014ra kontzeptu hori dela-eta Anfasantzat aitortutako gastuak 600.755 euro egiten du, honako xehetasunen arabera (eurotan):

	2009	2010	2011	2012	2013	Guztira
Programak gauzatzea	73.042	105.811	120.425	152.017	149.460	600.755

Nabarmendu beharra dago ezen, 2009an, aipatutako kopurua bat datorrela bi diru-laguntzarekin (19.130 eta 53.912 euro), autonomiaren sustapenaren arloko kalitate- eta prestakuntza-programetarako.

Halaber, 2010erako aipatutako kopuruak honakoak biltzen ditu: batetik, 91.411 euro, autonomia sustatzeko eta mendetasunari aurrea hartzeko programak egiteko diru-laguntza bati dagozkionak; bestetik, 14.400 euro, zainzaileen prestakuntzarako emandakoak, baina kontusail horretan bertan kontabilizatuta ageri direnak.

Gainerako urteetan, kopurua diru-laguntza bakarrari dagokio, hain zuzen ere autonomiaren sustapenerako eta mendetasunari aurrea hartzeko programetara bideratuari.

Autonomia sustatzeko eta mendetasunari aurre hartzeko diru-laguntzak emateko araubidea norgehiagoka izan zen; balorazio ekonomikoaren guztizko kopurua erabilgarri dagoen aurrekontu-kontsignazioa baino handiagoa izatekotan, banaketa proportzional bat egiten zen, kasuko barema aplikatzearen emaitza ziren kopuruena.

Diruz laguntzekoak diren kontzeptuak langile-gastuak eta aurkeztutako programetako berariazko jarduketan gastuak dira. Diruz lagun daitezkeen kopururik handiena programa bakoitzaren aurrekontuaren ehuneko 80 da; edo 6.500 euroko gehieneko zenbateko bat, baldin eta proiektua programa orokor baten gisara egituratzen bada.

Diru-laguntza horren deialdiak eta kontzesioak aztertuta, ondoriozta daiteke kontrola egokia izan zela eta, oro har, aplikatzekoa den araudia bete dela eta laguntzak aurreikusitako jarduerara bideratu zirela.

E) Finantza-defizita arintzeko aparteko laguntza.

2008an, Anfasek aparteko laguntza bat eskatu zuen bere defizita estaltzeko, baina PANAKo kudeatzaileek txosten bat eman zuten haren kontzesioa ukatzeko, haren existentzia egiaztatzerik izan ez zelako. Tasubinsan gertatzen zen bezalaxe, txosten horretan agerian jarri zen 2008ko galeren eta irabazien behin-behineko kontuak desberdin aurkeztu zirela urte horretako behin-behineko oroitidazkian eta 2008ko kontuen auditoria txosteneko ustiaketaren emaitzan.

2008ko auditoria-txostenean, 1.795.564 euroko superabita agertzen zen, higiezin batzuk Tasubinsaren kapital-zabalpenari gehitzearen ondorioz. Horren eragin zuen, kontabilitate-etekin bat egotea, zeren eta tasazioaren balioa nabarmen handiagoa baitzen (2,04 milioi euro) aurkeztutako ondasunen kontabilitate-balioa baino. Etekin hori lortzeari aplikatu zitzaion sozietateen gaineko zerga, ehuneko 10eko tasarekin.

Honelako entitateei aplikatzekoa zaion araudia eta arestian aipatutako zergaren erregulazioa aztertuta, Ganbera honek uste du deskribatutako eragiketean lortutako errentak salbuetsita egon beharko zuela. Izan ere, 2011n, antzeko egoera bat gertatu zen, zeren eta Anfasek higiezin batzuen ekarpena egin zuen Tasubinsaren alde, kapital-zabalkunde baterako; kasu horretan, elkarteak ez zuen zergarik ordaindu, Ogasunari horri buruz egindako kontsulta baten gomendioei jarraituz.

2009ko urrian, Ogasunak luzapen bat eman zion Anfasi zerga hori ordaintzeko. Elkarrearen eskarigutunean, honakoa esaten da hitzez hitz:

"Nafarroako Administrazioako maila gorenekin negoziazioak egiten ari gara zertarako eta zerga ordaintzeko funtsak zuzkitu ahal izateko bide bat aurkitzeko".

Ondoren, parlamentu-zuzenketa baten bidez, 2010eko aurrekontuetan, "Laguntza berezia Anfasetzat" izena daraman kontusail bat sartu zen, guztira 300.000 euro dituen. Honakoa zen haren helburua:

"Lokalak erosteko mailegu finantzarioen gastuek, hainbat zergak, likidezia lortzeko kredituek eta eta gastu arrunten ordainketak eta banku-zerbitzu eta antzekoen urteko gastuek eragindako finantza-defizitari konponbidea ematea".

2010eko irailean, Anfasek PANARI eskatu zion kontusail izendun hori ordain zezan. PANAREN teknikariak Anfasek aurkeztutako dokumentazioa aztertu zuten (2009ko kontuen auditoria, 2008ko sozietateen gaineko zerga, banku-datuak eta abarrekoak) eta txosten bat eman zuten, zeinean, besteak beste, honakoak adierazten baitziren:

- Aparteko laguntza, eragin guztietarako, 2009rako eta 2010erako diru-laguntza bat da, zeren eta 2008an ukatu baitzen.

- Diru-laguntzei buruzko Foru Legeko 28.8 artikulua honakoa zehazten du:

"Tributuak diru-laguntza jaso dezaketen gastuak dira diru-laguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenen. Ez dira inola ere diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat joko berreskuratzen edo konpentsatu ahal diren zeharkako zergak, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere".

Egitate hori kontuan hartuta, honakoa ondorioztatzen dugu:

"... erants liteke Sozietateen gaineko Zerga ere ez dela diruz laguntzekoa. Legezko muga horiek errespetatu beharrekoak dira...".

- Hori guztia dela eta, proposatzen da 2009ko eta 2010eko onartutako eta behar bezala justifikatutako gastuak, diruz lagundu beharrekoak, 78.680 eurokoak izatea.

2010eko abenduaren 16an, PANAKo zuzendari kudeatzaileak berariaz adierazi zuen ezen, prozeduraren legezketasuna bermatzen duen txosten juridikoa ikusita, 300.000 euroko diru-laguntza ematen diola Anfasi, eta justifikatutakoa ordaintzeko agintzen du (78.680 euro), eta esaten du diru-laguntzaren gainerakoa diru-laguntzaren xede diren gastuen exekuzioa egiaztatu ondoren ordainduko dela.

Diru-laguntza ematea abalatzten duen txosten juridikoa 2010eko abenduaren 22koa da, eta hartatik honako alderdiak nabarmen daitezke:

- Aipatzen da Anfasek informatu duela diru-laguntzak finantzatuko lukeen gastu nagusia lehen aipatutako sozietateen gaineko zergaren ondorioz Ogasunarekin dagoen zorra ordaintzea litzatekeela – 204.009 euro gehi interesak, hau da, diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 73–. Horri dagokionez, honakoa dio txostenak:

"...Zalantza dago gastu hori ordain daitekeen, behin egiaztatu ondoren...".

Aipatu bezala, Diru-laguntzei buruzko Foru Legearen 28.8 artikulua berariaz dio zerga horren ordainketa ez dela diruz laguntzekoa.

- Zergen finantzaketari dagokionez, honakoa dio txostenak:

"... guztiz egokituko litzaioke aurrekontu-legegileak kasuko krediturako aurreikusi duenari, alde batera utzita diru-laguntzei buruzko araudi orokorrak dioena; izan ere, araudi horren aplikazioan salbuespen bat egin beharko da, diru-laguntzaren xedeari era erabilpenari dagokienez, Parlamentuak adierazitako legegintza-borondatea betez...".

Ondoren, diruz laguntzekoak diren gastuen atala aldatu behar izan zen oinarri arautzaileetan, hain zuzen ere 2009ko eta 2010eko ekitaldiei zegozkienak, 2008ko ekitaldia ere sartu ahal izateko, nahiz eta urte hartan laguntza ukatu; halaber, beste atal bat aldatu zen, non sartu baitzen 2008ko sozietateen gaineko zergaren likidazioari zegoen zorraren ordainketa zorrak konpentsatzeko prozeduraren arabera gauzatuko zela; eta halaxe egin zen.

Azken batean, diru-laguntza honek suposatu zuen Anfasek sozietateen gaineko zerga bat finantzatzea, hain zuzen ere Anfasek ordaindu behar zuena Tasubinsaren kapital-zabalpen baten ondoriozko diruz besteko ekarpen batean lortutako etekinarengatik. Errenta horrek, alabaina, aplikatzekoa den araudiaren arabera, salbuesia behar zuen. Halaber, Diru-laguntzei buruzko Foru Legak zehazten du ezin dela diru-laguntzarik eman zerga horretarako. Parlamentu-zuzenketa baten bidez kontusail bat onetsi zen, eduki lauso samar batekin, eta PANAK hura gauzatu egin zuen, Parlamentuaren borondatea zela ulertuta.

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA: TASUBINSAK DIRU-LAGUNTZEN AZTERKETAREN LABURPENA

Diru-laguntzaren deskribapena eta ente finantzatzailea	Tasubinsak jasotako diru-laguntzaren azterketa
Lanerako prestatzeko zentroen finantzaketarako hitzarmena (PANA)	<p>Erabiltzaile bakoitzeko arretarako langile teknikarien ratioak exijitzen dira.</p> <p>Aldi batzuk badaude gauza berari buruz informatzen duten kopuruetan, egiaztapenak. Alde horiek diru-laguntzaren kudeatzaileek aurkitu dituzte.</p> <p>Aurreikusitako jardueraren betetzeari buruzko egiaztapenak badaude.</p>
Lanpostuei eustea, desgaitasuna duten lanerako enplegu berezietako langileen lantzerako enplegu finantzaketaren bidez (Nafarroako Enplegu Zerbitzua).	<p>Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren ehuneko 50 eta 75 bitarteko diru-laguntza, desgaitasun graduaren arabera.</p> <p>Aurreikusitako jardueraren betetzeari buruzko egiaztapenak badaude: langileen nomina batzuk aurkezten dira, zeinak egiaztapen gisa ere aurkezten baitira lanerako prestatzeko zentroen hitzarmenetan, eta kostuaren 100eko 100 baino gehiago finantzatu zen; hori dela eta, Nafarroako Enplegu Zerbitzua laguntzen <u>izulketa partzialerako</u> espedienteak izapidetu ziren, 2010-2013 aldiari buruzkoak. 250.595 euro egiten dute espediente horiek eta amaituta daude jada.</p> <p>Gainera, aurreikusita dago Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak espediente administratiboa irekitzea 2009ko kontabilitate-erantzukizunarengatik. 39.271 euro gehi interesak dira.</p>
Enplegu zentro berezietako babes-unitateetako langile teknikarien lan-kostuak finantzatzea (Nafarroako Enplegu Zerbitzua).	<p>Erabiltzaile bakoitzeko arretarako langile teknikarien ratioak exijitzen dira.</p> <p>Aurreikusitako jardueraren betetzeari buruzko egiaztapenak badaude: langileen nomina batzuk aurkezten dira, zeinak egiaztapen gisa ere aurkezten baitira lanerako prestatzeko zentroen hitzarmenetan; horrenbestez, ez dira exijituko ratioak betetzen.</p> <p>Nafarroako Enplegu Zerbitzua laguntza <u>guztiz itzultzeko</u> espedienteak izapidetu ziren 2010-2013 aldirako. 2.351.750 euro egiten dute eta amaituta daude jada.</p> <p>Aurreikusita dago Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak espediente administratiboa irekitzea 2009ko kontabilitate-erantzukizunarengatik. 545.695 euro gehi interesak dira.</p>
Lanpostuei eustea, enplegu zentro berezietako desgaitasuna duten langileen Gizarte Segurantzaren kuotaren hobearekin (Nafarroako Enplegu Zerbitzua).	<p>Aurreikusitako jardueraren betetzeari buruzko egiaztapenak badaude.</p> <p>2013an, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari exijitu zitzaion ordaintzeko zegoen zorra kitatzeko eta preskribitu gabeko aldiaren egindako ordainketak itzultzeko, zeren eta arau-aldaketa bat izan eta Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren finantzaketa-eskumena hartu baitzen. Erakunde horrek bi ekintzak onartu zituen.</p>
Enplegu zentro berezien (Nafarroako Enplegu Zerbitzua) aurrekontu-oreka, defizita finantzatzeko.	<p>Nahiz eta audiatu diren kontuen arabera, defizit bat egon, ez da definitzen zer den kontzeptu hori, eta ez dago jasota haren existentzia edo kuantifikazioa aztertutik. Ez dago jasota nola ezarri behar den desgaitasuna duen langile bakoitzeko diru-laguntzaren modua. Ekintza horien existentzia ez da xehetasunez zehazten; hori dela eta, ezin da finkatu diru-laguntza xede horretara bideratu den. Ez da aurkezten egindako jarduerari buruzko berriazko oroitadazkirik.</p>
Lanpostuak sortzea enplegua sortzen duten inbertsio proiektuetara bideratutako inbertsiorako eta finantzaketa partzialerako laguntzen bitartez (Nafarroako Enplegu Zerbitzua).	<p>Exijitzen da sei lanpostu sor daitezela, aplikatzea den araudiaren aurka: izan ere, arau horrek exijituko zuen kopuru nabarmen handiagoa sortzea (204).</p> <p>Aurrekustean da 5.5 milioi euroko inbertsioa egitea eta 2.45 milioi euroko diru-laguntza ematea. 3.08 milioi euroko inbertsioa justifikatzen da (aurrekustekoaren ehuneko 56), eta ez dago jasota aurrekustitako inbertsioaren gainerakoa egin denik.</p> <p>Espedientean ez dago jasota sei lanpostu horiek sortu direnik.</p>
Lanpostuak sortzea enplegu zentro berezietan inbertsioak eginaz (krisiaren aurkako neurriak), enplegua sortzen duten inbertsio proiektuak partzialki finantzatu (Nafarroako Enplegu Zerbitzua).	<p>2010eko eta 2011ko kontzesioek ez dute exijitzen lanpostuak sortzea, aplikatzea den araudian ezarritakoaren aurka (53 lanpostu).</p> <p>2010ean eta 2011n, 498.900 eta 509.000 euroko inbertsioa aurrekustean da, bat eta 406.040 eta 226.976 euroko diru-laguntza ere. 2010ean, inbertsioa bete arren, haren ehuneko 43 hasierako proiektuan aurrekusi gabeko elementuei dagokie; hori dela eta, uste dugu bidezkoa litzatekeela emandako laguntza partzialki itzultzeko kasuko espedientea formulatzea. 2011n, 284.379 euroko inbertsioa baizik ez zen justifikatu (aurrekustitakoaren ehuneko 56).</p> <p>Ez dago jasota laguntza horrekin inongo lanposturik sortu izana.</p>

2. ERANSKINA: ANFASEK JASOTAKO DIRU-LAGUNTZEN AZTERKETAREN LABURPENA

Diru-laguntza	Anfasek jasotako diru-laguntzaren azterketa
Etxebizitza programa (PANA)	<p>Tafallako, Zangozako eta Barañaingo hiru etxebizitzetean egindako jardueraren egiaztagiri guztiak aurkeztu ziren.</p> <p>2010aren amaieran, Tafallako eta Zangozako gastua kontratu baten bitartez formalizatu zen, eta Barañaingoa, berriz, diru-laguntza baten bitartez finantzatzen jarraitu zen (kontu-hartzailetzaren txosten bat badago, non kontratu bat formalizatzeke eskatzen baita).</p> <p>2010eko uztailetik (Tafallarako eta Zangozarako hitzarmenaren amaiera) kontratuaren formalizaziora arte (2010eko abendua), zerbitzua ematen jarraitu zen horretarako legezko estaldurarik eduki gabe. Emandako zerbitzuak "bidegabeko aberastearen" doktrina aipatuz ordaindu ziren.</p>
Arreta goiztiarrerako programa (PANA)	<p>2009ko irailera arte, 0 eta 3 urte arteko haurren arretarako diru-laguntza gisa kontabilizatu zen, eta data horretatik aurrera kontratu bat formalizatu zen.</p> <p>2012an, 3-6 urteko haurrentzako programa mota horretarako diru-laguntza bat kontabilizatu zen, 100.000 eurokoa. Alabaina, arreta-mota hori Hezkuntza Departamentuaren eskumena da. Deialdia 2012ko abenduan izan zen, hain zuzen ere urte horretako gastuak estaltzeko. Kontu-hartzailetzaren txosten bat badago, etendurako eragozpen-ohar batekin. Haren bidez, espedientea kudeatzaileari itzultzen zaio, aurkeztutako hiru eskaintzeiako bakarrik ere ez duelako betetzen deialdiak baldintza bat. Kudeatzailea ez zegoen ados kontu-hartzailetzarekin: izan ere, justifikatu zuten baldintza hori akats bat tarteko sartu zela deialdian eta inongo enfitatek ezin zuela bete, eta horregatik eman zela laguntza. Diru-laguntza ez da beste inoiz eman.</p>
Elkartegintzaren suslapena.	<p>Diru-laguntza ematen da zeren eta jotzen baita jarduera hori Gizarte Zerbitzuen Zorroak bermatzen ez duen prestazio bat dela. Banakako ebaluazioaren araubidea aplikatzen da. Diru-laguntza arautzen duen foru aginduak aldatzen joan dira aztertutako aldian (2010 eta 2012). Oro har, deialdiek eta kontzesioek aplikatzekoa den araudia bete dute, aurreikusitako jarduerara bideratu dira eta haren gaineko kontrola egokia izan da.</p>
Autonomia sustatzeko eta mendetasunaren prebentziorako programa egitea.	<p>Diru-laguntza ematen da zeren eta jotzen baita jarduera hori Gizarte Zerbitzuen Zorroak bermatzen ez duen prestazio bat dela. Norgehiagokaren araubidea aplikatzen da. Oro har, deialdiek eta kontzesioek aplikatzekoa den araudia bete dute, aurreikusitako jarduerara bideratu dira eta haren gaineko kontrola egokia izan da.</p>
Finantza-defizita arintzeko aparteko laguntza.	<p>Parlamentu-zuzenketa baten bidez, 2010erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean Anfasetzako aparteko laguntza bat sartu zen, honako xedearekin "Lokalak erosteko mallegu finantzarioen gastuek, hainbat zergak, likidezia lortzeko kredituek eta eta gastu arruntan ordainketak eta banku-zerbitzu eta antzekoen urteko gastuek eragindako finantza-defizitari konponbidea ematea". Diru-laguntza hori justifikatzen duen gastu garrantzitsuena sozietateen gaineko zerga izan zen, zeina Anfasek ordaindu behar baitzuen Tasubinsaren kapital-zabalpen baten ondoriozko diruz besteko ekarpen batean lortutako etekinarengatik. Aplikatzekoa den araudiaren arabera, lortutako errentak salbuesita egon beharko zuten. Bestalde, zerga horrek sortutako gastua ezin da diruz lagundu, Diru-laguntzei buruzko Foru Legearen 28.8 artikuluari jarraituz.</p> <p>Parlamentu-zuzenketa baten bidez kontusail hori onetsi zenez, hain eduki lausoarekin, PANAK hura gauzatu egin zuten, Parlamentuaren borondatea zela ulertuta.</p>

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**"Tasubinsa eta Anfasentzako laguntza publikoak (2009-2013)" izenburupean Kontuen Ganberak egindako behin-behineko txostena dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak aurkeztutako alegazioak.**

Kontuen Ganberak "Tasubinsa eta Anfasentzako laguntza publikoak (2009-2013)" behin-behineko txostena onetsi du. Hona hari buruz Nafarroako Enplegu Zerbitzuak aurkeztu dituen alegazioak:

Lehena. 6. orrialdean, enplegua sortzen duten ministerio aginduko proiektuei buruz hitz egiten denean, honakoa esaten da: "Inbertsioetarako ezarritako gehieneko muga 12.020 eurokoa da, desgaitasuna duten pertsonentzako sortutako kontratu egonkorreko lanpostu bakoitzeko". Hori ez da zuzena, eta, gainera, horrek garrantzia dauka txostenean ateratzen diren ondorioetan. Aipatutako ministerio aginduak, 2. artikulua 1. idatz-zatian, diru-laguntzen xedea ezartzen du: "partzialki finantzatzea langile minusbaliatu (sic) langabetuentzako enpleguak, ahal dela egonkorrak, sortzen dituzten proiektuak". Hau da, argi dago ministerio agindu honen kargura diruz laguntzeko aurkeztu diren inbertsioak enpleguak sortzera bideratu behar direla, ahal dela egonkorrak, desgaitasuna duten pertsonentzat.

Hala eta guztiz ere, ministerio aginduak diru-laguntza horien zenbatekoa finkatzeko modua 4. artikulua 4. idatz-zatian ezartzen du, eta honakoa dio hitzez hitz: " 1., 2. eta 3. idatz-zatietako diru-laguntzak, oro har, 2.000.000 pezetakoak izanen dira izaera orokorrean sortutako lanpostu bakoitzeko, baldin eta enplegu zentro bereziko langile minusbaliatuak plantilla osoaren 100eko 90 baino gehiago badira".

Horrenbestez, inbertsio proiektuak, agerikoa denez, desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak sortzera bideratu behar badira ere, ez denez zalantzen jartzen inolaz ere halakoak sortu izana, garrantzitsua da, ondorioak ateratzerakoan, sortu beharreko lanpostu kopurua, zeren eta horixe baita behin-behineko txostenean oker gisa aipatzen dena.

Eta horri dagokionez, ministerio aginduak, kopurua finkatzeko modua ezartzerakoan, exijitzen du sortutako lanpostuak egonkorrak izatea, baina ez daitezela zenbatu soilik desgaitasuna duten pertsonenak; behin-behineko txostenean, ordea, oker ondorioztatzen da haiek soilik zenbatu behar direla finkatze aldera zenbat lanpostu sortu behar ziren, desgaitasuna zuten pertsonen arabera emandako diru-kopuruari erreparatuta.

Horrenbestez, eskatzen da 6. orrialde horretan aipa dadila ministerio aginduak zehazki dioena: "inbertsioetarako laguntzen gehieneko kopurua 2.000.000 pezetakoa da (12.020 euro) sortutako lanpostu egonkor bakoitzeko".

Bigarrena. 1. alegazioan aipatutakoari dagokionez, 13. orrialdeko c) letran Ganberak esaten du kapitaleko diru-laguntzak "ez zaizkiola egokitzen aplikatzekoa den araudiari, sortu beharreko lanpostu kopuruaren eskakizunari dagokionez".

Egia bada ere, txostenak dioen bezala, laguntza emateari buruzko ebazpenek exijitzen zutela edo 6 lanpostu sortzea (auditoria egiterakoan hori jada Ganberari adierazi zitzaion, esanez transkripzio akats bat behar zuela), edo batere ez sortzea, egia da, halaber, ebazpen horiek eman zirela 1998ko urriaren 16ko Ministerio Aginduaren babesean, eta, horrenbestez, baldintzak ministerio agindu horretan bertan ezarritakoak direla.

Gainera, adierazi beharra dago behin-behineko txostenaren arabera sortu beharko litzatekeen lanpostu kopurua (204 lehenengoan eta 53 bigarreanean eta hirugarrenean) ez dela zuzena, ondoren adierazitakoarengatik.

Ministerio aginduak egiazki aurreikusten du gehienez ere 2.000.000 pezetako diru-laguntza eman daitekeela sortutako lanpostu egonkor bakoitzeko. Kopuru hori, agerikoa denez, gaurkotu beharrekoa da, zeren eta orain dela 14 urteko diru-laguntza bati buruz ari baikara (10 urtekoa lehenengo kontzesioan, 12 urtekoa bigarreanean eta 13 urtekoa hirugarrenean). Urte horietako KPIa aplikatuta, honakoa da lanpostu bakoitzeko eman beharreko gehieneko kopurua:

2008ko ekainean: 16.779 euro.

2010eko maiatzean: 16.828 euro.

2011ko ekainean: 17.404,96 euro.

Horrenbestez, zenbateko horiek ikusita, honakoa zen sortu beharreko lanpostuen kopurua:

146 lanpostu urte anitzeko kontzesiorako

25 lanpostu 2010eko kontzesiorako

13 lanpostu 2011ko kontzesiorako

Guztira: 184 lanpostu.

Horrenbestez, eskatzen da alda dadila c) letra horretan esandakoa, eta doitu dadila sortu beharreko lanpostu kopurua KPIaren gaurkotzearen arabera, eta aipa dadila berariaz ezen, ebazpenak lanpostuak jasotzen ez bazituen ere, erreferentzia egiten ziola haiek sortzea exijitzen zuen arauari (ministerio agindua).

Horri dagokionez, ikus, era berean, 10. alegazioa.

Hirugarrena. 13. orrialde berean, d) letran, behin-behineko txostenak honakoa esaten du inbertsioetarako emandako diru-laguntzei buruz: "ez dago jasota araudiak exijitutako lanpostuak sortu direnik". Guztiz okerra da hori, zeren eta Ganberak bere esku baitaizka Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emandako zerrendak, non demostratzen baita KPIa aplikatuta sortu behar ziren 184 lanpostuak baino gehiago sortu direla. Zerrenda horiek dira hileror aurkezten zirenak lansari-kostuetarako diru-laguntza zela-eta, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak hileror konprobatzen zituenak, nominak eta haien ordainketa egiaztatzerakoan.

Horri dagokionez, argitu beharra dago Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, ekonomia printzipio batengatik, ez zituela fotokopiatzen kontratatutako pertsonen zerrendak eta kontratu berriak, beste espediente batzuetan sartzeko (babes-unitateak, inbertsioak...); izan ere, haiek bazituenez, lansari-kostuei zegokien karpetan artxibatzen zituen, baina, berriz diogu, haiek konprobatuta, lansari-kostuak ordaindu ahal izateko; horrenbestez, informazio hori bazegoen, inbertsioak justifikatze aldera.

Horrenbestez, Ganberari eskatzen zaio zuzen dezala d) letra horretan esandakoa eta berariaz adieraz dezala informazio hori jasota zegoela lansari-kostuei buruzko espedienteetan.

Laugarrena. 13. orrialde beran, e) letran aipatutakoari dagokionez, aitortu beharra dago egokiagoa izanena zela kontzesio-ebazpenek jasotzea lanpostuak sortzeko epea, justifikatzeko modua edo moduluko jarduketa, baina hori ez da nahikoa arrazoi ondorioztatzeko ebazpenak ez direla araudiaren arabekoak; izan ere, araudiak ez du exijitzen gai hori ebazpenetan sar dadila. Izatekotan, interesdunaren segurtasun juridikoa hobetzeko zuzendu behar diren gabeziak dira.

Eskatzen dugu letra horretan berariaz adieraz dadila ez direla araudiak exijitutako gaiak.

Ikus, halaber, 10. alegazioa.

Bosgarrena. 13. orrialdean, f) letraren ondorengo lerrokadan, berriz diogu c) letran ezarritakoari buruz hitz egiterakoan aipatu genuena: ez da egia irizpideak ez direnik araudiaren arabekoak eta, horregatik, Ganberak beste irizpide batzuk izan baditzake ere, esaldi hori kendu egin beharra dago.

Gainera, lerrokada horri dagokionez, eskatzen dugu sar dadila enplegu-sorrera balorazio irizpide baten gisara –ez baldintza baten gisara– jasotzen duen deialdi berria Nafarroaren eskumenen arabera onetsi zela, eta hartara Estatuko arau bat, duela 16 urtekoa, aplikatzeari utzi zitzaioela; eta hori horrela egin da legearen arabera den norgehiagoka prozedura batez baloratu ahal izateko inbertsio batean garrantzitsuak diren gai asko, enplegua sortzeaz haratagokoak, nola baitira proiektuaren bideragarritasun teknikoa, berrikuntza, Moderna Planari egokitzea eta abar. Horixe bera sartu beharra dago 28. orrialdeko ondorioan.

Seigarrena. 13. eta 14. orrialdeetan, atalaren amaieran, honakoa esaten da: "Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kasuan, diru-laguntza horiek aztertutako aldiaren kudeatzeko, jarraitzeko eta kontrolatzeko sistemak, batzuetan, eskasak izan zirela, eta txosten honetan agerian jarritako ondorioak ekarri zituztela; alabaina, kontrol hori nabarmen hobetu da 2013tik aurrera".

Horri dagokionez, ez dugu ulertzen nola, Ganberak antzeman ondoren inbertsioen justifikazioan alde bakar bat dagoela (2010ekoa), ondoriozta daitekeen diru-laguntzak kudeatzeko, jarraitzeko eta kontrolatzeko sistemak batzuetan eskasak izan zirela. Gai bakarra dago, eta horixe da jaso behar dena.

Bestalde, txostenak aipatzen dituenak espedienteak baldin badira, non Tasubinsak babes-unitateen edo lansarien kostuaren % 10 baino gehiago aurkeztu baitzuen, txostenak jada hainbat aldiz dio hori Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta PANAK antzeman zutela, hain zuzen ere Tasubinsaren justifikazio bikoiztuak jasotzen zituzten erakundeek. Horrenbestez, ikuspuntu horretatik ere, ezin da ondorio hori ulertu.

Zazpigarrena. 15. orrialdean, 4. gomendioa kendu beharra dago, zeren eta gaur egun inolako zentzurik ez baitu. Gaur egun dauden deialdi guztiek (lansarietakoak, babes-unitateetakoak eta inbertsioetakoak) jada diru-laguntzak emateko jarraitu beharreko irizpide guztiak jasotzen dituzte, Ganberak adierazi bezala.

Zortzigarrena. Seigarren alegazioan azaldutako arrazoi hori bera tarteko, gure ustez 15. orrialdeko azken lerrokadan esan beharra dago "PANAK eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kontrolak egiten jarraitu behar dutela eta Ganberaren gomendioak bete behar dituztela". Berriz diogu ez dakigula zertan oinarritzen den Ganbera bi erakundeen kontrolak bereizteko, bi kasu horietan justifikazioa zuzena izaki, aplikatzekoa den araudia- ren arabera; eta egin behar dena da, behin-behineko txosteneko 1. gomendioan adierazi bezala, datuak gurutatzeko prozedura normalizatu bat ezarri.

Bederatzigarrena. 19. orrialdean, C) letraren aurretiko azken lerrokadan, aipatzen da ezen "Tasubinsak haietako batzuen nominak aurkeztu zituela jasotako bi inbertsio justifikatzeko...". Okerra da. Tasubinsak % 100 egiten zuten nominak aurkeztu zituen, bai lanerako prestatzeko zentrorako, bai enplegu zentro berezieta- rako. Gure ustez horixe da jaso behar zena.

Hamargarrena. 23. orrialdeetik aurrera, zehazki kapital-transferentziei buruz hitz egiten da; horiek inbertsioe- tarako diru-laguntzetan gauzatzen dira. Orrialde hauetan, behin-behineko txostenak gabezi batzuk jasotzen ditu, bai eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bere esanetan jarraitu duen irizpidea ere, eta ondorioztatzen du, arrazoiak eman gabe, ez dagoela ados jarraitutako irizpideekin nahiz eta ondorioak ez dakarren berarekin inongo itzulketarik eskatu behar denik irizpide horiek aplikatzeagatik, 2010eko inbertsioaren kasuan izan ezik, non esaten baitu itzulketa partzial batetik heldu dela, inbertsioaren justifikazioan dagoen alde baten ondorioz. Horrekin, ordea, ados dago erakunde hau.

Horixe da alegazioen gai nagusia, haien beste une batzuetan adierazten den bezala. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak azaldu du zein irizpide jarraitu zituen ulertzeko Tasubinsak araudia betetzen zuela eta, horrenbes- tez, diru-laguntzak ongi eman zirela ondorioztatzeko. Baldin eta Ganberak ulertzen badu, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bezala, itzulketa ez dela bidezkoa, horretarako arrazoia da araudia bete egin zela; izan ere, bes- tela, itzulketa exijitu beharko litzaioke. Besterik da Ganbera honek uste izatea irizpide horiek hobeki dokumen- tatu behar zirela, baina horrek ezin gaitu eraman ondorioztatzerako araudia ez zela bete. Horrenbestez, eska- tzen dugu hori alda dadila agertzen den txosteneko atal guztietan.

Ondoren azaltzen ditugu Nafarroako Enplegu Zerbitzuak erabilitako irizpideak, txostenean jasotakoak, era- kutsi nahi baitugu legearen arabera jokatu dela:

a- Zenbatekoa kalkulatzeko, KPIa hartu da kontuan. Logikoa da hori, iragan den denbora ikusita. KPIa aplikatuta sortu behar ziren lanpostuak 2. alegazioan aipatzen direnak dira.

b- Behin zenbatekoa finkatuta, bidezkoa da ezartzea zer ulertzen den sortutako lanpostu egonkor gisa, ho- rixe baita ministerio aginduaren 4. artikulua exijitzen duena. Behin-behineko txostenaren interpretazioa, gure ustez, okerra da, honako arrazoiak direla eta:

Aruak ez du sortutako enplegu garbiaz hitz egiten, baizik eta sortutako enpleguaz. Exijitzekoa dena da lanpostu berriak sor daitezela, ez beste batzuk ez daitezela suntsitu, zeren eta hain zuzen ere diru- laguntzaren xedea baita enplegu zentro berezietan inbertitzen laguntzea, zertarako eta beren jarduera berrorien- tatuz aukera berriak sortu ahal ditzaten, enplegua sor dezaketena edo, bestela, beste arlo batzuetako en- plegu-suntsipena konpentsa dezaketena.

Lanpostu egonkorak izateak ez du esan nahi mugagabeak direnik. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 6 hila- betekoa hartu du irizpide gisa, langile jakin batek enpleguan dirauen aldia neurtzeko irizpide bat erabilia. Horri dagokionez, 6 hilabeteko epea finkatu da, desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko neurriei buruz dagoen arau bakarrera jota, zenak kolektibo horren arloko kontratazioetarako gutxieneko epe bat finkatzen baita. Arau hori uztailaren 2ko 870/2007 Errege Dekretua da, zeinak enplegua babes moduan hartzeko pro-

grama arautzen baitu, desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan merkatu arruntean sustatzeko neurri moduan. Arau horren 3.2 artikulua, kontratazioa finantzatzeko baldintza gisa aipatzen du, besteak beste, iraupen mugagabea edo jakina izan dezala, 6 hilabeteko gutxieneko iraupen batekin. Hori dela eta, denboraririzpide hori aplikatu daiteke desgaitasuna duten pertsonen kolektiborako lanpostu egonkorren kontzeptu moduan, zeren eta kolektibo horren enplegua sustatzeko antzeko kasu baterako araututa baitago jada.

1. alegazioan jada aipatu den bezala, ministerio aginduak, lanpostuekin lotutako kopurua finkatzerakoan, ez ditu zenbatzen soilik desgaitasuna duten pertsonen kontratuak; horrenbestez, jotzen dugu desgaitasunik ez duten pertsonen lanpostuen sorrerak ere balio duela. Izan ere, enplegu zentro berezi guztiek desgaitasunik gabeko pertsonak behar dituzte beren plantilletan zenbait lanpostutarako.

Arauk ez du epe bat ezartzen zeinean lanpostu horiek sortu behar baitira. Are gehiago, gure ustez logikoa da ondorengo aldiak kontuan izatea, zeren eta inbertsioak lanpostuak sortu behar baititu gertatu eta ondoren. Nafarroan Enplegu Zerbitzuan uste dugu zenbatu beharreko aldia 2008ko urtarrilean hasi (data hori da lehenengo fakturak onartzekoa) eta gutxienez ere 2012ra artekoa dela 2010ean diruz laguntzen amaitu zirenetarako, eta 2013ra artekoa, berriz, 2011n diruz laguntzen amaitu zirenetarako.

Izan ere, Tasubinsak urtero kontratatutako pertsona desgaituen kontratuak aurkezten zituen. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, berriz, dokumentazio hori lehendik zeukan, desgaitasuna duten pertsonen lansariak eman eta ordaintzeko; horrenbestez, urte bakoitzean 6 hilabete baino gehiagoko iraupenarekin sortutako lanpostuen kopuru zehatza ezagutzen da; kopuru hori, desgaitasunik ez duen pertsonak gehituta, ederki iristen da ministerio aginduan xedatutakoa betetzera, baita 2014. urtea sartu gabe ere. Tasubinsak 228 lanpostu sortu ditu.

c- Inbertsioaren exekuzioari dagokionez, egia bada ere Tasubinsaren aurreikuspena egiazki exekutatu denaz bestekoa dela zenbatekoari dagokionez, egia da, era berean, kasu honetan ez dela garrantzitsua, zeren eta, ministerio agindua aplikatuta, ez baitzen diru-laguntzaren portzentaje bat eman, baizik eta sortutako lanpostu bakoitzeko kopuru bat. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak konprobatu behar zuena da ea emandako zenbatekoa estaltzeko behar adina lanpostu sortzen ziren, eta ez diru-laguntzak exekututako guztian zenbat egiten zuen. Egiaztapen hori jada eginik dago.

Horrenbestez, berriz diogu ezen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak azaldu baditu zein irizpide jarraitu zituen ulertzeko Tasubinsak araudia betetzen zuela eta, horrenbestez, diru-laguntzak ongi emanda daudela, eta Ganberak uste baldin badu, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bezala, itzulketa ez dela bidezkoa, horren arrazoiak dela Nafarroako Enplegu Zerbitzuak araudia bete egin zuela; izan ere, bestela, itzulketa exijitu ahalko zion.

Horrenbestez, eskatzen dugu alda dadila atal hori guztia, horri dagokionez.

Hamaikagarrena. 29. orrialdean, oharrei buruz ari dela, kapitaleko inbertsioak aipatzerakoan, behin-behineko txostenak akats bera errepikatzen du. Berriz dio Tasubinsak aurreikusitako inbertsioa egin behar zuela eta aurreikusitakoa baino portzentaje txikiagoa egin zuela. Guk berriz diogu ministerio aginduak ez duela arautzen diru-laguntzaren portzentaje bat ematea, baizik eta sortutako lanpostu bakoitzeko zenbateko finko bat (12.020 euro, KPIarena arabera gaurkotuak). Horrenbestez, baieztapen hori araudian aipatutakoaren aurkakoa da, eta kendu beharrekoa da.

Gainera, berriz esaten da 204 lanpostu sortu behar zirela, nahiz eta 184 ziren sortu beharrekoak, bigarren eta hamargarren alegazioetan aipatu bezala, eta berriz esaten da "aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren aurka", nahiz eta hala ez izan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 24an

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea: M.^a Isabel García Malo

Tasubinsaren alegazioa

Talleres Auxiliares de Subcontratación Industria Navarra, S.A.ko (TASUBINSA) lehendakari Usue Zulet Jurio andreak, 2014ko azaroaren 20ko Administrazio Kontseiluko akordioak betez, honakoa AZALTZEN DU:

Azaroaren 17an Kontuen Ganberak eginiko "Tasubinsa eta Anfasetzako laguntza publikoak (2009-2013)" izeneko behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso zuela.

Emandako epearen barruan, honako ALEGAZIOAK aurkeztu dituela:

ALEGAZIOAK

Aurretikoa.- TASUBINSAk sozietate anonimoaren taxuera juridikoaren pean dihardu, nahiz eta, bere estatutuen arabera, irabazi asmorik gabeko sozietate bat den, etekinak banatzeko debekua duena; horrek esan nahi du sozietateak lortutako baliabide guztiak, bai merkataritza-trafikoaren arloan, bai laguntza publikoen bidez, osorik bideratzen direla bere azken xedera: desgaitasuna –bereziki adimen-desgaitasuna– duten pertsonak laneratzea eta gizarteratzea.

Ez lehendakariak, ez Administrazio Kontseiluko gainerako kideek ez dute lansaririk kobratzen eta ez dute lansaririk kobratu Kontseiluan egiten duten lanarengatik, ez eta bertaratze-dietarik edo bestelako lansari edo kalte-ordainik ere.

TASUBINSAren bazkideek eta jabeek ez dute sekula enpresaren etekinik banatu, eta ez dituzte sekula sozietatearen baliabideak bideratu beren xede sozialaz bestekoa den xede batera.

Gure hasieratik, pertsona asko dira borrokatu dutenak erakunde hau erreferente bat izan zedin, bai Nafarroan, bai nazio mailan, desgaitasuna duten pertsonen enpleguaren esparruan. Askok dira Tasubinsan lan egin duten pertsonak; asko dira beste enpresetako pertsonak gure kolektiboaren gaitasunean konfiantza jarri dutenak; asko dira erantzukizun politikoak izan eta proiektu hau lagundu duten pertsonak; asko dira administrazio publiko desberdinetako langileak gure eguneroko lanean parte hartu dutenak; eta asko dira adimen-desgaitasuna duten pertsonen senideak, azken batean, enplegu aukera bat sortzen lortu dutenak lan-merkatu arruntak barnean hartzen ez dituen pertsonentzat.

Gure helburua errentagarritasun soziala da. Eta helburu horren Nafarroako gizarteari zerbitzatzen dio, eta bera bilatzen dugu beste enpresa batzuentzat lan desberdinak eginez, bai eta adimen-desgaitasuna duten pertsonen bideratutako lanerako zerbitzuak emanez ere. Helburu hori da TASUBINSAren egungo kudeaketaren norabidea gidatzen duena.

Txostenari buruzko alegazio zehatzetara sartu aurretik, txostenak ematen dituen datu orokorreki dago kienez, beharrezkotzat jotzen dugu azaltzea Tasubinsaren kontrol- eta zuzendaritza-organoetan azken urtean gertatu diren aldaketak.

Bere hasieratik, Tasubinsa Administrazio Kontseilu batek zuzendu du. Kontseilu horretan jabeek (lehenengo Anfasek eta gero Anfasek eta Fundosak) 4 kontseilari zituzten Kontseilua osatzen zuten 13 kontseilarietatik. Eta Anfasek beti kontseiluaren lehendakaritza izan badu ere, kargu hori ordezkaritza hutsezkoa zen; beraz, ez zen kargu exekutiboa, eta ez zuen esku hartzen enpresaren kudeaketan.

Tasubinsaren kudeaketa bere Zuzendaritzak gauzatu du, Administrazio Kontseiluak izendatutako kudeatzaile batekin eta zuzendari finantzario batekin. Halaber, enpresako zuzendaritza-taldeko hiru pertsona kontseiluko kideak ziren.

2013ko udatik, jabeek (Anfas eta Fundosa) behin eta berriz aipatu dute Administrazio Kontseilua eraberritzeko beharra, eta azkenean eraberritze hori lortu zuten 2014ko maiatzaren 29ko Batzar Orokorrean, non erabaki baitzen kontseilari kopurua 13tik 5era jaitea, eta kontseilari horiek jabeen ordezkariak izatea.

Aurtengo apirilean eta maiatzean, halaber, zuzendari kudeatzailea kargutik kendu zen, eta zuzendari finantzarioa, eragiketen zuzendaria eta sistemetako zuzendaria ere kaleratu ziren. Hartara, aldaketa sakona egin zen zuzendaritza taldean.

Administrazio Kontseilu berriak, kudeatzaile berriak eta zuzendaritza talde berriak beren buruari proposatu diote sozietatea kudeatzeko moduak aldatzea, eta horren helburua da hobetzea bai emaitzak, bai eta, batez ere, jasotako diru-laguntzekin ematen den zerbitzu publikoaren prestazioaren eraginkortasuna. Horretarako, kontrol- eta gardentasun-tresna batzuez hornitu gara.

Esparru horretan, iragan diren hilabete eskasetan, honako jarduketak eraman dira aurrera:

– Zuzendaritza taldea *murriztu da, eta 7 pertsonakoa izatetik 5 pertsonakoa izatera pasa da. Kudeatzailearen eta zuzendaritza-taldearen lansariak gutxitu dira, eta hurrenez hurren urteko 60.000 eta 45.000 euro gordinetan finkatu dira gehienez, kontzeptu GUZTIAK hartuta, helburuei lotutako ordainsari oro kenduta.*

Horren adibide gisa nabarmendu nahi dugu, zuzendari kudeatzailearen ordainsaria, 2006tik 2013ra, batez beste, 80.000 eurokoa izan dela, eta kasuren batean 99.378 eurokoa izatera ere iritsi dela. Kopuru horri, gainera, kopuru aldagarri bat gehitzen zitzaion soldataren % 25era bitartekoa. Zuzendari kudeatzaile berriaren 2014ko lansaria 60.000 eurokoa da, kontzeptu guztiak hartuta, eta ez dago neurtutako bestelako ordainsaririk; horrek berarekin dakar, aurrekoen batez besteko lansariarekin alderatuta, % 25 gutxiago kobratzen duela, eta % 40 gutxiago lansari handiena jaso zuenarekin alderatuta. Ildo beretik, zuzendaritza taldearen lansariak ere gutxitu dira.

– *Jasotako diru-laguntzei buruzko kontrol-sistema bat ezarri da, haien exekuzioari eta justifikazioari dagokienez. Horretarako, urteko aurrekontua hileroko aztertze prozedura bat ezarri da, bai eta proiektuen araberako gastu-egiaztagiriak kontrolatzeko aplikazio informatiko bat ere, haiek justifikatzen direneko finantzaketa-iturri desberdinen araberakoa.*

– *Urteko kontuen auditoria-txostena egiten duen kanpoko enpresa aldatu da.*

– *Hornitzaile guztiak aztertzen ari dira eta prozesu guztien berritze orokorra hasi da, besteak beste.*

Gure ustez, neurri horiek guztiak ezinbestekoak dira Tasubinsaren kudeaketa hobetzeko, arlo guztietan, zeren eta izan dugun arazo nagusia izan baita jasotako diru-laguntzen justifikazioarekin lotutako kudeaketa eskasa, eta kudeaketa hori ardura zuten organoei (Administrazio Kontseilua) begira guztiz opakoa izatea.

Lehena.- Enplegu zentro berezietako desgaitasuna duten langileen lansari-kostuetarako diru-laguntzak.

Txosten honetatik eratorzen denez, Tasubinsak desgaitasuna zuten zenbait pertsonaren nominen parte bat gastuen justifikazio gisa aurkeztu zuen bi diru-laguntza desberdin eskuratzeko. Gastu horien justifikazioa bikoiztuta egotea Tasubinsaren akats bat da, zeren eta azaldu bezala, bi diru-laguntzak bateragarriak baitziren, nomina horien finantzaketak guztizko kostuaren % 100 gainditzen ez zuen bitartean.

Lanerako zentroetarako hitzarmenak PANAK eta Tasubinsak finantzatzen zituzten, halako moduz non Tasubinsak hitzarmen horien betetzerako justifika baititzake bikoiztutako kopuru ekonomikoa baino askoz gehiago diren bestelako gastu exekutatuak. Izan ere, bi diru-laguntza bateragarriak justifika zitezkeen langileen kostuaren % 100aren finantzaketa gainditu gabe eta gastuak bikoiztu gabe.

Hori dela eta, adierazten dugu diru-laguntza horien justifikazioan Tasubinsaren akats bat egon zela, eta ez inongo irregularitasunik haiek ematerakoan edo haiek erabiltzerakoan. Horrenbestez, gure ustez ez da egia laguntzen kontzesioa okerra izan zenik, ez eta diru-laguntzak ez zirela bideratu eman zireneko jardueretara.

Tasubinsak lansari-kostuen justifikazioan egindako akatsa onartu du, eta oinarriekin ados ez bagaude ere, diruz lagundu ez diren eta justifika zitezkeen gastu askoz handiagoak izan baititu, onartu behar dugu laguntza horien itzulketa partziala egitea; hain zuzen ere, 250.595 euro.

Bigarrena.- Enplegu zentro berezietako babes-unitateetako langile teknikarien lansari-kostuak finantzatzeko diru-laguntzak.

Diru-laguntza horiei dagokienez, halaber, akats bat egon da Tasubinsak gastuak justifikatzerakoan.

Berriz ere, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako babes-unitateen kostuen justifikazioa bikoiztu egin zen, zeren eta aurkeztutako gastuen artean beste justifikazio bat jaso baitzen, txosten honetan ageri den bezala.

Hori dela eta, Tasubinsak akatsa eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak proposatutako ondorioak onartu ditu, eta kontzeptu hori dela-eta 2010-2013 aldian jasotako diru-laguntza guztiak itzuli ditu; hain zuzen ere, 2.351.750 euro.

Hala eta guztiz ere, esan beharra daukagu ez gaudela ados guztizko itzulketa horrekin, zeren eta uste baitugu guztiz desproporzionatua dela egindako justifikazio-akatsarekin alderatuta.

Kontua ez da Tasubinsak ez zuenik bere plantillan profesionalik babes-unitatetan, baizik eta justifikatutako profesionalak, behin bikoiztuak kenduta, ez direla iristen, diru-laguntzen deialdiko ratioen arabera, enplegu zentro berezian kontratatutako desgaitasun larriko langileen kopuruaren arabera beharrezkoak diren babes-unitateen kopurura. Txostenean deskribatu bezala, diru-laguntza gutxitu beharrean, bera justifikatutako babes-unitateei egokitzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emandako diru-laguntza guztiz itzultzeko eskatu du.

Babes unitateetako langile bikoiztuengatik jasotako diru-laguntzari erreparatuz gero, eta haien justifikazioan egindako akatsa onartuta, uste dugu bidezkoa izanen zela bikoiztutako kostu horiei dagokien diru-laguntza itzultzea, ez jasotako diru-laguntza osoa, zeren eta jarduera garatu egin baitzen.

Urtea	2010	2011	2012	2013
Jasotako diru-laguntza	532.224,11 €	535.200,00 €	539.929,72 €	542.400,00 €
Aurkeztutako langileak	53	56	56	56
Bikoiztutako langileak	32	30	26	23
Diru-laguntza bikoiztua	321.342,86 €	286.714,29 €	250.681,66 €	222.771,43 €

Gure iritziz, 2010-2013 aldian egin ditugun justifikazio-akatsei dagokion itzulketa bat izanen litzateke bikoiztutako langileen parteari dagokiona, halako moduz non ulertuko genukeen jasotako diru-laguntzaren itzulketa partzialerako espediente bat izapidetu beharko litzatekeela, eta ez diru-laguntza osoa itzultzeko espediente bat.

Aldi horretan bikoiztutako langileen guztizkoa % 50 dira, eta gehienetan pertsona berak zenbait urtez errepikatu dira; hori dela eta, uste dugu kopuru hori izan beharko litzatekeela Tasubinsak itzuli beharrekoa. Hau da, 1.081.510,24 euro gehi horiei dagozkien berandutza-interesak.

Egoera horren aurrean, berriz esan behar dugu Tasubinsak diru-laguntzen justifikazioan bikoiztu duena baino askoz ere diru gehiago itzuli behar duela, ia bi halako, eta egoera hori, gure iritziz, guztiz desproporcionatua da, zeren eta gastuak justifikatzerakoan egindako akats bat baita, eta ez diruz lagundutako jardueren exekuzio falta bat; are gehiago, jasotako diru-laguntza guztiak Tasubinsaren jardueran bertan erabili dira.

Hirugarrena.- Sobran dago enplegu zentro berezietako desgaitasuna duten langileen Gizarte Segurantzarentzako kuoten hobaria (Nafarroako Enplegu Zerbitzua).

Txosten honek aipatzen ditu Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eragina duten zenbait gai, zeinetan Tasubinsak ez baitu parte hartzen eta zeinek ez duten bera ukitu. Ez dakigu gai horiek zein diren, eta ez da bidezkoa haiek gure kudeaketarekin lotzeko modu hori.

Laugarrena.- Enplegua sortzen duten inbertsio-proiektuetarako kapitaleko diru-laguntzak (Nafarroako Enplegu Zerbitzua).

Lehenengo, esan beharra dago Tasubinsak beti laguntza horiek emateko ebazpenetan exijitutako baldintzak bete dituela, eta uneoro arau indarduna bete izan duela. Horri dagokionez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak txosten honetan emandako azalpenetara jo beharra dago; izan ere, txostenean diru-laguntzak emateko jarraitu diren irizpideak aipatzen dira, eta jotzen da Tasubinsak bere betebeharrak bete egin dituela.

Halaber, aipa daiteke ezen Tasubinsak, kapitaleko diru-laguntzen finantzaketarekin garatutako proiektuei esker, enplegua sortu ahal izan duela krisialdiaren eta atzeraldi ekonomikoaren urte gogorrenetan.

Bosgarrena. 2010eko kapitaleko diru-laguntza. 498.000 euroko diru-laguntza bat izan zen. Esna beharra dago lortutako laguntzaren kopuruaren % 100 bideratu zela aldi horretan inbertsioak egitera; hala eta guztiz ere, Kontuen Ganberaren txostenak jaso bezala, % 43 bideratu zen hasiera batean inbertsio-proiektuan jasota ez zeuden inbertsioak egitera.

Berriz ere, alde bat dago Tasubinsak laguntzak direla-eta egiten duen justifikazioan, zeren eta legediak baimentzen baitu hasierako proiektua aldatzea behin kasuko eskaria aurkeztuta; dokumentu hori, berriz, ez zen sekula idatziz aurkeztu. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago ezen 2010ean iritsitako % 57az gainera, aurreikusitako inbertsioaren % 31 gehigarria gauzatu egin zela, baina justifikazio-alditik kanpora; hain zuzen ere, 2011n, kopuru hori egiten duten kontusail exekutatu batzuk badaude, 2010eko proiektuarekin bat datozenak eta Tasubinsak ordaindu dituenak, nahiz eta inongo diru-laguntzatarako justifikazio gisa ez diren aurkeztu.

Arrazoi horiek direla eta, ez gaude ados txosten honetan islatutako iritziarekin, honakoa dioten atalean: "...bidezkoa litzatekeela emandako laguntza partzialki itzultzeko kasuko espedientea formulatzea...". Adierazi bezala, diru-laguntzaren % 100 bideratu da Tasubinsan 2010eko ekitaldian egindako inbertsioetara, eta 2010 eta 2011 artean hasierako inbertsio proiektuan planteatutako inbertsioen % 88 egin dira.

Seigarrena.- Azkenik, txostenean honakoa esaten da: "*Diru-laguntzen guztizko kopuruaren ehuneko 13, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak guztiz kudeatua, oker eman zen edoleta ez zen erabili aurreikusita zeuden jarduerak egiteko*".

Tasubinsan uste dugu jaso ditugun diru-laguntzei buruzko baieztapen hori okerreko bidetik interpreta daitekeela, zeren eta, adierazi bezala, diru-laguntza guztiak legedi indardunaren esparruan jaso baitira, haien

justifikazioan gertatu diren egoera guztiak zor izan zaizkie guk gastuen justifikazioan egindako ageriko huts bati, eta haiek guztiak bideratu dira Tasubinsaren jarduerara eta haren xede soziala betetzera.

Tasubinsan diru-laguntzak direla-eta egin dugun kudeaketa, justifikazioari dagokionez, ez da sekula Administrazio Kontseiluan aztertu. Hori dela eta, egoera guztiz ezezaguna zen kontseilu horrentzat.

Hala eta guztiz ere, gabeziak ezagutu diren unean, zuzendu egin dira eta kontroleko zenbait tresna jarri dira abian egoera hori berriz gerta ez dadin.

Tasubinsaren egungo Administrazio Kontseiluak eta zuzendaritza taldeak ongi dakite zein erantzukizun handia dagoen jasotzen diren diru-laguntzen kudeaketa egokiari dagokionez, eta ongi dakite, era berean, nolako berezitasunak hartu behar dituen kontuan bere antolamenduan, langileei dagokienez.

Errentagarritasun sozialeko enpresa bat gara eta, hori dela eta, bestak beste, gure lan hitzarmenean konpromisoa hartzen dugu ezintasunarengatiko edo trebetasun ezarengatiko kanporatzerik ez egiteko; lanpostuetan behar diren egokitzapen guztiak egiten ditugu; Nafarroako lurralde osoan presente gaude, gure baliabidea landa gunetara hurbiltzeko, zeinak normalean ahaztuta baitaude, nahiz eta horrek kostu ekonomiko handiagoa ekarri; berdintasun plan bat eta osasuna sustatzeko beste plan bat badauzkagu; eskatzen duten ikastetxe guztiekin lankidetzan jarduten dugu (ikastetxeak, institutuak, hezkuntza berezia, unibertsitateak); praktikaldiak egiteko plazak eskaintzen ditugu, eta abar.

Irabazi asmorik gabeko enplegu zentro bereziak egoteari, gizarte-baliabide gisa, ezin zaio eutsi jasotzen diren diru-laguntzengatik ez bada, eta diru-laguntza horiek araudian ezarritakoak dira. Haiek, gero, ahal den efizientziarik handienarekin kudeatu behar dira, kalitate eta gardentasuneko irizpideekin. Eta hori hala da gizarte baliabide gisa ez ezik, Nafarroako ekonomian modu aktiboan parte hartzen duten entitateak garen aldetik ere.

Horri dagokionez, Tasubinsak, 2012an, azterlan bat egin zuen honako izenburuaren pean: "*Gizarte ekimeneko enplegu zentro berezi batean egindako inbertsio publikoaren gizarte-itzulketaren azterketa, SROI metodologia aplikatuz*". Hartan, agerian geratu zen administrazio publikoek aztertutako gizarte ekimeneko enplegu zentro berezian –Tasubinsak Aratzurin duenean– inbertitutako euro bakoitzeko (lansari-kostuetarako diru-laguntzak, gizarte segurantzarentzako hobariak, inbertsioetarako laguntzak eta babes-unitateetarako diru-laguntzak), enplegu zentro bereziak gizarteari 3,94 euro itzuli dizkiola. Administrazio publikoek inbertitutako euro horretaz gainera, Tasubinsak 0,68 euro itzultzen dizkie zuzenean kutxa publikoei, halako moduz non administrazio publikoek egiazki inbertitzen duten kopurua 0,32 eurokoa baita; hartara, inbertsio garbiaren halako hamar itzultzen zaio gizarteari.

Hori dela eta,

ESKATZEN DU: Kontuen Ganberak eginiko "Tasubinsa eta Anfasantzako laguntza publikoak (2009-2013) " izeneko behin-behineko fiskalizazio-txostenari aurkeztutako ALEGAZIOAK, TALLERES AUXILIARES DE SUBCONTRATACIÓN INDUSTRIA NAVARRA, S.A.ren (TASUBINSA) izenean eta haren ordezkari egindakoak, aurkeztutaz jo eta onar daitezela, eta dagokien lege-izapidea eman dakiela.

Aratzurin, 2014ko azaroaren 24an

Usúe Zulet

Anfasen alegazioak

Anfas-Asociación Navarra a favor de las personas con discapacidad intelectual y del desarrollo elkarteko lehendakari María Usua Zulet Jurío andreak, 2014ko azaroaren 20ko Zuzendaritza Batzarraren erabakiak bezela, honakoa AZALTZEN DU:

Azaroaren 17an Kontuen Ganberak eginiko "Tasunbisa eta Anfasentzako laguntza publikoak (2009-2013)" izeneko behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso zuela.

Emandako epearen barruan, honako ALEGAZIOAK aurkeztu dituela:

Alegazio hauek dagozkio soilik eta eskusiboki txosten horretan Anfasi buruz esandakoari.

Elkarteko Zuzendaritza Batzarrean eta Gerentzian pozik dago, zeren eta Kontuen Ganberako profesionalen taldeak egindako lanak agerian jarri baitu Anfasen kudeaketa ona.

Horixe egin du agerian utziz Nafarroako Gobernuak Anfasi emandako laguntzak, diru-laguntzen bidezkoak nahiz kontratuen bidezkoak, bai eta udaletatik jasotakoak ere, bideratu direla xede zuten jarduera betetzera.

Halaber, txostenak nabarmentzen du datuak behar bezala kontabilizatuta daudela eta exijitzen diren egiaztagiri guztiak behar bezala aurkeztu direla.

Jasotako diru-laguntzen zenbatekoan gutxitze bat izan den arren eta haiek elkartearen diru-sarreraren gutzitza koaren % 44 bainik ez diren arren, familien, profesionalen, adimeneko eta garapeneko desgaitasuna duten pertsonen beraiek eta boluntario eta bazkideek, bai eta partikularrek eta Anfasen entitate laguntzaileek ere, egindako ahaleginari esker, 2009an ematen ziren zerbitzu eta programa guztiei eutsi zaie edo haiek zabaldu ere egin dira elkartea dagoen eremu guztietan (Baztan-Bidasoa, Lizarra, Iruña, Tafalla, Tuter, Zangoza eta Sakana). Hau da, Nafarroa osoan, entitateek zerbitzu gutxi ematen dituzten landa gunetara ere iritsita.

Azaldutakoa dela eta, eskatzen du Kontuen Ganberak eginiko "Tasunbisa eta Anfasentzako laguntza publikoak (2009-2013)" izeneko behin-behineko fiskalizazio-txostenari aurkeztutako ALEGAZIOAK, Anfasen izenean eta haren ordezkari egindakoak, aurkeztutak jo eta onar daitezela, eta dagokien lege-izapidea eman dakiela.

Iruñean, 2014ko azaroaren 24an

Anfaseko lehendakaria: María Usúa Zulet Jurío

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Tasubinsak eta Anfasek aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jo dugu. Hala eta guztiz ere, Ganbera honek honako alderdiak azpimarratu nahi ditu:

Nafarroako Enplegu Zerbitzutik jasotako alegazioak

1- Lehenengo puntuan Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jotzen du lanpostu egonkorrek sortzeak desgaitasunik ez duten pertsonen lanpostuak ere hartzen dituela. Gure txostenean adierazi bezala, laguntza hauek arautzen dituen ministerio aginduak berariaz dio 2.1 eta 4.B.1 artikuluetan diru-laguntzak zuzentzen zaizkiela "...langile minusbaliatu langabetuei... eta ekarri behar dutela minusbaliatuentzako enplegu egonkorra sortzea...". Hori dela eta, horri buruz dugun iritzia berretsi beharrean gaude.

2- Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bigarren puntuan dio ezen, Tasubinsak sortu behar zituen lanpostuen kopurua finkatzeko sortutako lanpostu bakoitzeko finantzaketa-modulua gaurkotu beharra zegoela. Gure txostenean aipatu bezala, laguntza hauei aplikatzekoa zaien ministerio aginduak ez du aipatzen ezarritako zenbatekoa (12.020 euro sortutako lanpostu bakoitzeko) gaurkotu behar denik, eta, horrenbestez, ez du deskribatzen, ezta ere, gaurkotze hori egiteko prozedura; horrenbestez, horri buruz atera ditugun ondorioak berretsi beharrean gaude.

3- Hirugarren puntuan, aipatzen da Tasubinsak 184 lanpostu sortu dituela, eta, horrenbestez, kontzesio-ebazpenean exijitutako baldintzak bete dituela. Gure txosteneko 26. eta 27. orrialdeek hitzez hitz aipatzen dute espedientean ez dagoela jasota behar diren lanpostuak sortu direnik, eta bai jasota dagoela kontratazioen zerrenda bat. Hala eta guztiz ere, diru-laguntza ematen denez plantilla zabaltzeko, kontratazioen zerrenda horrek ez du suposatzen hura handitu denik, zeren eta ez baitzen aztertu ea kontratazio horiek enpleguaren igoera garbirik ekarri zuten. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egokitzen du enplegu-sorrera gordin, ez ordea garbia. Gure txostenean aipatzen denez, Ganbera honen ustez enplegu-sorrerak garbia izan behar zuen; hau da, horretarako lanposturik suntsitu gabe. Tasubinsaren kontu auditatuaren oroitidazkien arabera, sozietate horrek 19 lanpostu garbi sortu zituen 2007-2013 aldian.

4- Laugarren puntuari dagokionez, Ganbera honek ez du aipatu kontzesio-ebazpenak araudiaren arabera-koak ez zirenik izan, lanpostuak sortzeko epea edo justifikazio modua ez jasotzeagatik; soilik aipatzen dugu (13. puntuan) nabarmentzeko moduko gabeziak direla, zeren eta laguntza hauek arautzen dituen ministerio aginduaren 10.1 artikuluan berariaz aipatzen baita alderdi horiek jaso beharrekoak direla.

5- Hamargarren puntuan aipatzen da lanpostu egonkorrek ez duela esan nahi mugagabea denik. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak uste du lanpostu egonkorra dela sei hilabetekoa edo hortik gorakoa. Ganbera honek berresten du sei hilabeteko kontratu batek ez duela izaera egonkorrik, eta, horrenbestez, ez litzatekeela kontuan izanen enplegu egonkorra sortzearen eraginetarako.

Aurreko alderdi horiei guztiei dagokienez, berriz diogu Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diru-laguntza horiek emateko egindako interpretazio edo jarraitutako irizpideak direla, baina ez zirela justifikatu diru-laguntzak emateko espedientean, eta ez direla aplikatzekoa den araudiaren arabera-koak. Izan ere egiaztatu da Estatuko gainerako autonomia erkidegoetan horrelako diru-laguntzak ematerakoan, aplikatzen diren irizpideak Ganbera honek interpretatutakoak direla; ez, ordea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jarraitutakoak. Hartara beste autonomia erkidego batzuetako kontzesio-ebazpenetan honako alderdiak aipatzen dira berariaz:

- Sortzen diren lanpostu egonkorrek desgaitasuna duten langileentzat izan beharko dute.
- Sortutako lanpostu bakoitzeko finantzaketa-modulua ez da gaurkotzen, inongo kasutan ere eta inongo urtetarako ere (2014ra arte emandakoak aztertu dira), araudian ezarritakoari jarraituz.
- Ulertu beharra dago lanpostu egonkorra dela gutxienez ere hiru urteko iraupena duen kontratu mugagabe bat sortzen duena.
- Aipatzen da lanpostu kopuruaren igoerak garbia izan behar duela, eta plantilla handitzea ekarri behar duela.

6- Bederatzigarren puntuari dagokionez, egindako akats tipografikoa zuzendu dugu.

7- Hamargarren puntuari dagokionez, txostenean jasotako ideia berresten dugu, zeren eta enplegua sortzeko inbertsioetarako diru-laguntzak emateko ebazpenak ez baitira izan erreferentziako lege-esparru gisa erabilitako ministerio-aginduaren arabera-koak. Baldin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua irizpide horrekin bat

badator, kasuko administrazio-prozedura abiatu beharko du aipaturako diru-laguntzak emateko ebazpena baliorik gabekoa dela deklaratzeko.

Tasubinsatik jasotako alegazioak

Babes-unitateetako langile teknikarien lansari-kostua finantzatzeko diru-laguntzei buruzkoa den bigarren atalari dagokionez, Ganbera honek uste du diru-laguntza emateko exijitzen ziren langile-ratioak ez direla bete eta laguntza dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskatzen duen guztizko itzulketa zuzena dela.

Eskerrak eman nahi ditugu lankidetzarengatik eta egindako oharren edukiarengatik.

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

